


# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1991ko Apirilak 12, 102. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**ANTTON  
DEL  
CAMPO,  
Injinerua  
etxegintzan  
murgilduta**

# Altamirako etxe berriak



# LEINTZ BERTSOTAN

**Apirilak 20, Larunbata  
Gauko 8.30etan**

**Apotzagako  
Auzo-etxe elkartean**

**Txartelak:  
AEDn, Beinken eta Apotzagan**

# LETRAKIT

erakusketa ibiltaria

**Arrasaten**

**Apirilak 19-24**

**Biteriko aparkalekuan**



**EUSKAL LITERATURA**

**ETA**

**ALFABETATZEAREN HISTORIA**

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.

Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:**

Arrasateko Udala

**Zuzendaria:**

Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:**

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Josune Biteri

Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:**

Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:**

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:**

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Urizarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa arduraduna:**

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:**

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

## Iraganetik etorkizunera

**O**rain dela urtebete inguru Arrasaten agertu ziren harresiek iragan hurbil baten irudia proiektatu diezagukete. Ikerketa zientifikoak argi gehiago eman beharko liguke, gure historia txikiaren gauean izkutatuturiko zenbait alderdiri buruz. Horretarako balio dute aurkikuntzek eta horregatik dira baliotsu. Arkeologi indusketek azaltzen dutenak ez du, berez, inolako garrantzirik: aurkikuntzari, berak eskain dezakeen argitasun-mailak ematen dio inportantzia. Baina, hala ere, giza interpretazioak hain aldakor eta erlatibo izanik... zuhur jokatu behar da, urrats faltsurik ez emateko.

Arrasatetik oso urruti ez dagoen bazter batean, aurkikuntza ikusgarria egin zuten zenbait arkeologok, orain dela urte pare bat: VI. mendeko hilerri oso bat atera zuten azalera. Hogeitahogeitabost hezurduraz aparte, sekulako altxorraz dute ikerlariek topo egin, gure arbasoek hil ondorengo bizitzari buruz izan zezaketen eritzia uler dezagun ongi baino hobeto lagunduko duena.

Hala ere, indusketa horretan dihardutenek aurkikuntza ixilean irauteraztea erabaki zuten, inongo basatik nahiz sasi jakintsuk bertan

muturrik sar ez dezan. Zientziak ahalbidetzen dizkien bitartekoez aritzea eta aztertzea zeharo etsigarri gerta dakieke... baldin eta euren lanaren gaineko zalantzak ezartzen badira, oraindik saiakeran ari direnean. Horrexegatik, ezer ezagutarazi aurretik hilerri horren ikerleak buru belarri ari dira, euren ariketaren emaitza agertzean ezelango dudarik gerta ez dadin.

Egun hauetan ere irakurri dut zerbait Qumran-eko eskuizkribuei buruz. Itsaso Hileko bazter haietan, 1947an egindako aurkikuntzak mutu utzi zuen mundua, kristau-mundua batipat. Hebraiera eta aramieraz idatziriko papiro haiek, dirudienez, Bibliako zenbait pasarte adierazten zuten. Baina berehala dokumentu haiek polizi-estiloko bahiketa jasan zuten. Israel eta Jordaniako poliziek ez zuten papiroen desagerketa eragotzi ahal izan. Batzuen ustez, arriskugarri gerta zitezkeen.

Edozein herrik aurrera begira bizi behar duela egia baldin bada ere, ez da txikiagoa iraganak indar handiz eragin dezakeela herri horren etorkizunean. Eta askotan -konszienteki- eragozpenak ezartzen zaizkio sus-traien bilaketari.

*Josemari Velez de Mendizabal*

# egizabal

*Bidekurutzeta 13,*  
**BERGARA**

# Elisabete



**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**BERANGO**

Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko ateak

Legarreko pabiloi industrialak  
(behea) Tfno: 79 01 92



**H A U R T X O A**

Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE



**BELUN**  
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

**ARAMAIO**  
okindegia

Maisu Guridi 3,  
Tfnoa: 79 36 46

**Informazio okerra**

Zuzendari jauna:  
Aste honetako astekarian irakurri dudanez, EAJren zerrendak betetzeko ni "tanteatu" nautela arrakasta handirik gabe esan leike.

Ezinezkoa da ez hartzea inork proposatu ez duena. EAJk nire errespetu handiena du, eta udal hauteskundeetarako zerrendak betetzeko ziur nago ez dutela nire beharrik.

Itxura denez, zuen berri iturriak ez dira nahiko zuzenak izan, ero publikatzeko hartu diren hitzak ez dira egokienak izan.

Inoiz ere zuzentzeko nahi nuke nik ezetzik eman diodanikEAJri.

Aurretik eskerrak emanez.

Jose Antonio Goitia Zubia

**Beinke kultur taldea**

Beinke Kultur Taldeak pirilaren 13tik 26ra bazkide kanpaina bat burutu behar du. Aretxabaletako euskararen normalizazio bidean daramagun ekimean erangikorak izan nahian eta honelako lan garrantzitsua bideratu ahal izateko, *Beinke* moduko taldeek duten garrantziaz jabeturik, kanpaina honekin herriko ahalik eta euskalzale gehienengana heldu gura genuke.

Badira lau urte Beinke sortu zenetik. Aretxabaletan euskararen normalizazio-

rako bidean ahaleginak elkartu eta bideratzeko asmoz sortu zen.

Gaur ere helburu berarekin dihardugu, ez egin daitekeen lan guztia guk zentralizatzeko, ez euskararen bandera gureganatzeko. Euskararen alde gaudela diogun denok euskararen aldeko lanean inplikatzeko.

Bai. Ez digute beldurrik ematen inplikazioa eta militantzia bezalako hitzek. Elkartean euskararen militanteak behar ditugu, euskararen militantzia ez zen eta ikastolen sorrerarekin bukatu Gaur egun ere, militantzia askori esker instituzioetatik lan handia egin daitekeen unean, beharrezkoa da instituzio horiekin elkarlanean, herrian, kalean, etxeetan, euskararen erabilera bultzatuko duen talde bat. Arlo guzietan eta arlo bakoitzean normalizazioari ekingo diona.

Eta talde honek zabala eta eraginkorra izan behar du. Zabala, adin, giro eta pentsakera ezberdineko jendea bilduko duena, euskararen aldeko jarrera izango delarik elkargune bakarra. Eta eraginkorra, eraikitzailea, gauzak egingo dituena, euskara ez bait da kaleko mural eta hau bezalako kanpainekin bakarrik normalizatzeko.

Ez utz guztion lana batzuren esku, (eta gero batzu horiek bandera baten azpian identifikatu). Euskararen aldeko lanak jarraitu egin behar du eta horretarako zu euskara bezain garrantzitsua zara. Beinke zurea duzu.

Beinke

**Zer da Zotz-Motz ?**

Zuetariko batzuk galdera hori egin diguzuenez, hona hemen erantzuna. Zotz-Motz Arrasate Pressek herriko sei merkatariekin antolatutako sariketa da. Hala ere, Zotz-Motzen barruan **lehiaketa eta zozketa** daudela esan daiteke:

1. **Asteroko lehiaketa batetik.** Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero guk egindako galderari ondo erantzuten diotenen artean. Asteroko lehiaketan parte hartzeko galdera moztu behar da, ondo erantzun eta Arrasate Pressera bidali. Asteazkenetan irabazleen izenak aterako dira eta ostiraletan sariak banatu.

2. **Uztailaren 16an egingo den zozketa handia.** Bertan Arrasate Pressek eta aipatutako sei merkatariek ematen dituzten Renault Clio autoa eta astebeterako bi lagunentzako bidaia bat Kanariar Irlalara zozkatuko dira. Zozketa honetan parte hartu ahal izateko txartelak Zotz-Motzeko kide diren merkatariek banatuko dituzte euren bezeroen artean.

Animo bada, eta ea zorte ona duzuen!

# Zer erizten diozu ura fluorazteari?



**Mari Karmen Askasibar**  
(Etxekoandrea)

Lehen hemengo urari horixe falta zitzaiola eta bota behar zitzaiola zioten, orain beste batzuk txarra dela diote. Niri botatzea ondo iruditzen zait, haginak ere zaindu beharko ditugu eta.



**Patas Etxebarrieta**  
(Langabetua)

Oso gaizki iruditzen zait. Kontuan hartu behar da ur guztia ez dela edatekoa, asko galdu egiten da, eta fluorra oso kutsakorra da. Gainera ur naturala edateko eskubide osoa daukagu, eta horrela aukerarik ez digute ematen.



**Jose Maria Saez**  
(Langilea)

Urtegiatako ura edateko oso txarra da, zikinkeria asko botatzen delako, eta fluorra botatzea ere ez zait ondo iruditzen.




**Elena Uribarren**  
(Telefonista)

Neurri egokia dela iruditzen zait, umeen kariesak ekiditzeko ona izan daiteke-elako.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORATZA**

**MemesA**

**79 42 22**

**Hilbera**  
**kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

# KOPIOTXOA

*Fotokopiak*

*Planu-Erreproduzioak*

*Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
ARRASATE

## Ez diguzu sinesten?

Egizu aproba  
Argaltzea erraza da,  
gustatzen zaizuna jenez,  
gainera.

**BENETAN** pisua galdu  
nahi duten pertsonen bila  
gabiltza.

Ordua eskatzeko 77 14  
81 telefonoan.

**Arrasaten**

**BEHARREZKO  
TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako anbulantziak .....	45 87 44
-------------------------------	----------

**UDALTZAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

**GARRAIOAK**


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO  
ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO  
INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77



**12  
OSTIRALA**

- Zinea: Amaia. "Ordinaria locura", gaueko 10.30etan.
- Alai. "Tres hombres y una pequeña dama", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gaeuz: Camacho, Bergaran.

**13  
LARUNBATA**

- Zinea: Alai. "Tres hombres y una pequeña dama", 5, 7.30 eta 10etan.
- Txotxongilo emanaldia. Gorakada taldearekin, "Atxis Pum" lana. Amaian, arratsaldeko 5etan.
- Kantaldia. Antton Valverde eta Xabier Leterekin, Aretxabaletako Zاراia zineman gaueko 10.30etan.
- Eskoriatzako frontoian

**Kirol  
Agenda**

**FUTBOLA**

- Mondra eta Hernani taldeen arteko futbol partidua Atxabalpen, igandean arratsaldeko bostak laurden gutxiagotan.

**FUTBITOA**

- Zaldibarko Futbito Txapelketako finalerdiak. Igandean, goizeko hamaiketan, *Adelaida-Zuloak*, eta hamabietan *Bar Kajoi-Artankos*

jaialdia, Eskoriatza, Aretxabaleta, eta Al-Andalus elkarteko taldeekin, arratsaldeko 5etan.

- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gaeuz: Puy

**14  
IGANDEA**

- Zinea: Alai. "Tres hombres y una pequeña dama", 5, 7.30 eta 10etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gaeuz: Puy.

**15  
ASTELEHENA**

- Zinea: Alai. "Tres hombres y una pequeña dama", 7 eta 9.30etan.
- Gazteentzako Sexualitate ikastaroan, Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres. Gaeuz: Guallar, Bergaran.

**16  
ASTEARTEA**

- Zinea: Alai. "Tres hombres y una pequeña dama", 7 eta 9.30etan.
- Hitzaldia. "Nekazaritza Deba Garaian", Monterronen arratsaldeko 7etan..
- Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuturik enkartelamendua, Portaloian arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

**17  
ASTEAZKENA**

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

**18  
OSTEGUNA**

- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

**ZIKLOTURISMOA**

- Elgoibartik bueltan, Arrateraino joango dira igande honetan Arrasateko zikloturista taldekoak. Eurekin batera joan nahi duenak goizeko hamarretan Portaloian egotea besterik ez dauka.

## Jaialdiak

### • Al-Andalus

Al-Andalusek antolatuturik, Eskoriatzako frontoian bihar larunbatez dantza jaialdia burutuko da. Jaialdiari arratsaldeko 5etan emango zaio hasiera, honako talde hauek parte hartuko dutelarik: Eskoriatzako musika eskolak, Aretxabaletako Loramendi dantza taldeak, "Sueños de Andalucía" dantza taldeak, "Al-Andalus" abesbatzak, eta flamenko taldeak

## Hitzaldiak

### • Eskola Politeknikoa

Eskola Politeknikoko Biteri Egoitzak antolatuturik, hitzaldi sorta iragartzen da datozen egunetarako. Hilaren 16an, asteartean alegia, Juan Antonio Larrañaga Errealeko jokalaria, "Real Sociedad" barnean kirol bizitza izenburua daraman hitzaldia eskainiko du, arratsaldeko zazpiak laurden gutxiagotan. Hilaren 23ko hitzaldia berriz. Alemaniari eskainiko zaio, Pablo Alberto Schroderren bitartez, Alemaniako kontsularen bitartez, hain zuzen. Hitzaldi sortari bukaera emateko, maiatzaren 8 eta 9an Sabino Aiestaranek zuzendutako mintegia burutuko da. Hitzaldi guztiak Politeknikako Areto Nagusian izango dira.

### • UNED

XX. mendeko euskal arteaz dauden ikuspegi ezberdinak aztertu nahirik, Bergarako UNEDeko Historia Departamenduak hitzaldi sorta antolatu



## KANTALDIA

### Xabier Lete eta Antton Valverde Aretxabaletan

Isilik zeuden aspaldian, eta Durangoko azokan berragertu ziren abenduan. Aspaldiko partez agertze hura despedida kutsukoa izan zen askorentzat, tristea oso. Baina ordutik emanak dituzte beste hainbat saio, eta herriz-herriko ibilaldi honetan Aretxabaletara iritsiko dira larunbat honetan. Betiko kanta zaharrak, pianoz eta kitarraz jantziak, eta kanta bat edo beste musika ezberdinaz entzun ahal izango ditugu. Xabierren beraren eta Lizardiren letrekin josita. Hitzen kontu horretan, hala ere, beti ezagutu izan ditugunetan ere aldaketak somatu genituen Durangoko hartan, zuzeneko saioen berotasunak sortuak agian, edo sinesmen berriek behartuta beharbada. Betiko ahots latza eta pianoaren konpasa nahasi, hala ere, nostalgiko eta garai bateko kanten zale direnentzat zita derrigorrekoa. Makina batek errepikatuko du...

Larunbatean gaueko 10.30etan Aretxabaletako Zariaian, Beinkeren eskutik. Sarrerak: 800 bazkideentzat, 1.000 pta. bestela.

du, Pilar Muñozen ardurapean. Lehen hitzaldia bihar bertan izango da, goizeko 11.30etan "Artearen berrikuntza: 30etako euskal artea eta artistak" izenburupean.

Ondorengo bi larunbateetan ere bi hitzaldi izango dira, bata Oteizari buruzkoa eta bestea, Remigio Mendibururi buruzkoa.

## Irteerak


### • Mendi irteera

Aretxabaletako Murruxio Mendizale Taldekoak, igande honetan Udalaizera joatekotan dira, goizeko 9etan Partenoitik

aterako direlarik. Arrasatetik Udalaizera joatekotan direnak ere, badakite beraz atxabalta-rrak lagun izango dituztela.

## Ikastaroa

• "Osasuna eta norbere buruaren ezagupena" izen-



burupean ikastaro bat antolatu da Eskoriatzan, apirilaren 27 eta 28rako. Larunbatean egun guztiz eta igande goizez egingo da ikastaro teoriko-praktikoa, San Viatorren. Lorea Garai medikua, Jose Mari Azkarate psikologoa, Valentin Zurbano Tai-Tsi irakaslea eta Mari Jose Pagaldai erizainaren ardurapean. Norbere gorputza eta psikearen arteko lotura aztertu eta kontzientzia hartzea du helburu. Ikastaroaren prezioa 6.000 pta. izango da. Izena emateko dei egin 79 91 01 telefonora. Informazio gisa, hitzaldi bi antolatu dira, 19an Eskoriatzako Kultur etxean 7etan eta 22an Monteironen ordu berean.

## Bertsolaritza

### • Leintz Bertsotan jaialdia

Urtero bezala, datorren asteburuan hilak 20, bailarako bertsolari gehienak Apotzagan bilduko dira "Leintz Bertsotan"



jaialdia egitera. Ohi denez, jaialdiari afariaren bidez emango zaio hasiera, 8.30ak aldera, Apotzagako tabernan. Afarira eta saiora joan nahi duten guztiek, txartelak AED edo Beinken eskuratu ditzakete.

## Mus Txapelketa

• Arranok antolatuta, 20an jokatu da. Jokatu nahi duten bikoteek 1.000 pta. ordaindu. Sari interesgarriak.

“... baina oraindik ez dakigu, eta beraz erantzunaren zain gaude oinezko langile asko eta asko, nola geratuko den saihes bidearen amaiera, Kataideko Industrialderako sarbide dena, benetako arriskua, eta egunero bizitza jokoan jartzea (norbait harrapatu ere egin dute).

Nori dagokio arazo hori konpontzea?, ala hurrengo udal hauteskunderen zain geratu beharko ote dugu, ia alderdiren bati, botuak irabazteko lehian arazo larri hori sartzea bururatzen zaion ikusteko?”.

(Juan Jose Guridik El Diario Vascon)

“ (Eskoriatzan) Museo Eskola berria inauguratu zen ostiralean eta museo berriari esker, Euskal Herriko eskolume guztiek aurrehistoriara hurbiltzeko aukera politagoa izango dute, espazio eta ekipamendu hobeak eskaintzen dituelako. (...) Duela urte batzuk, Aitzorrotz Etnologi Taldeak etnografiari buruzko erakusketa antolatu zuen arrakasta handiarekin. Hemendik atera zen erakusketa museo bilakatzeko asmoa, eta duela sei urte Eskoriatzako museo-eskola jarri zen martxan Kultur Etxe azpian. Orain, Hidalga kaleko bosgarren zenbakian ezarri dute museoa eta 300 metro karratuko azpi bat da”.

(Egunkarian)

“ Kooperatibak ezin dio bere bazkideen kulturarekiko duen erantzukizunari itzuri egin. Laguntzea da gauza bat eta erakunde ofizialei dagozkien erantzukizunak hartzea bestea.

Gure kasuan, bazkideen hizkuntzarenganako errespetuak produktuak eta zerbitzuak herriaren hizkuntzan eskaintzera behartu behar gaitu, kooperatiba kokatuta dagoen lekuko hizkuntzan hain zuzen ere. Eta baita bere berreskuratze eta normalizazioa ere”.

(Jesus Garmendiak TU-Lankide aldizkarian)

**Zer aurkituko du Parrokiako artxiboan eta zer lan egin beharko du Jose Letona bekarekin lanean hasiko denak?**



Herria zaindu eta bizkortu behar du Udalak. Oraina bikain bat bultzatu eta prestatu. Gauzak horrela izanik, ez al da dirua alperrik gastatu eta botatzea herriko historia ezagutarazteko beka bat sortzea? Utz dezagun bakean iragana eta landu dezagun oraina. Argudio erraz horretan erori ez delako txalo bero bat Udalari. Ez dago zuhaitz sendo eta mardulik sustrai bikainik gabe, eta sustrai horiek lantzeko Parrokiako artxiboa estudiatzeko beka sortu du Udalak.

Legajoz betatako 40 bat karpeta aurkituko ditu ikertzaileak: *testamentos, títulos y posesiones, censos, pleitos y demandas, fundaciones* eta abar luzea. XVIII. mendeko hiru liburu, txukun jarriak eta beste lau XVII. ekoak. 52 eskuizkribu ere aurkituko ditu, XVI. mendean geroztiko gure arbaso zaharren berri emango digutenak: *relación de bautizados, obras pías, capellanías, fundaciones, testamentos, inventarios*, etab. XVI. gizaldiko liburu berezi bat ere badugu, agiri notarialeki buruzkoa, karta fundazkionaltik hasita.. Kofradia eta elkarten 24 liburu ere badira. Liburu sakramentalak, XVI-XIX bitartekoak Donostiako artxiboan daudenak, eta gainerakoak hemen, eta horiek ere aztertzea komeniko litzateke. Mezak eta kantu liburuak ere badaude, eta garai batean eginiko bataio eta ezkontz fitxero orokorra ere hor dago erabilgai. Guzti horrek zer emango duen? Ez jakin. Azterlarria trebe eta langile baten eskuetan, auskalo. Zorte on!

Joxe Mari Astigarraga  
Parrokoa


**FAGOR**



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



**PEÑACOB**  
Auto-Eskola

Zarugalde 46,  
79 14 01

ARRASATE

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde 23, 2. Ezk.  
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE



ARRASATE


BERGARA

ARETXABALETA

ESKORIATZA

ONATI

EA




Pedro M. Ruiz de Azua



Juan Mari Garitano



Pedro Mendieta



Erabaki barik



Pedro Telleria

EAJ



Jose Mari Loiti



Bittoriano Gallastegi



Koldo Azkoitia



Pedro Uribe



Angel Mari Iturbe


EE




Aitor Orobengoa




Albaro Ezparza



Erabaki barik





Erabaki barik



Migel Angel Kortabarria

HB



Xabier Zubizarreta




Jose Luis Elkoro



Aitor Irure



Jesus Urrutia



Jabier Altube

PSOE




Nekane Iglesias




Fco. Javier Zendoia



Angel Sagarribai



Luis Muñoz




Andres Alarcón

EMK-LKI



Arrate Landa



Erabaki barik



Juan Carlos Bengoa

Eskoriatzako baseritarren kandidatura

□ Hitzarmena

Udaleko Gobernu batzordeak, No-  
via Salcedo erakundearekin hitzarmena  
sinatzea erabaki zuen joan den astele-  
heneko bileran. Fundazio horrek ikas-  
taro, lehiaketa, lanpostu, beka eta gaz-  
teentzat intereseko diren beste hainbat  
gairi buruzko informazioa biltzen du,  
eta hitzarmenaren ondoren gazte zerbi-  
tzuko informazio bulegoak informazio  
hortaz baliatzea izango du.

□ Epaiketak arrasatearrei

Datorren astelehenean, Epaitegi  
Nazionalen Eloi Irazabal, Pedro Guri-  
di, Ramon Bidaburu, eta Artzamendi  
arrasatearrak epaituak izango dira, Fe-  
lix Bengoa oñatiarrarekin batera. Epai-  
keta honetara joan nahi dutenentzat  
Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzor-  
deak autobusa antolatu du, Arbolapeta-  
tik aterako den autobusa hain zuzen.  
Asteazkenean, Epaitegi Nazionalen  
ere, Rafa Etxabe arrasatearra eta Mikel  
Osa bergararrari epaiketa egingo zaie.

□ Zuhaitz aldaketa

Gorostizatik Zigarrola aste honetan  
aldatzekoak ziren sekuoia eta magnolia  
beren lekuan geratu dira oraingoz, ara-  
zo teknikoak tarteko. Zuhaitzok Maxi-  
Eroski ondoan egin nahi den lorategian  
landatuko dira, eta garraioan kalterik  
jasan ez dezaten, igelsoz babestu diz-  
kiote erropak. Landaketa oraingoz la-  
runbatera atzeratu da.

□ Lapurreta

Azken egunotan famatu egin da  
Oñatiko zerrailaria izenez ezagutzen  
den lapurra. Bailaran etxe eta autoetan  
lapurreta ugari egin duenez, atxilotze-  
rakoan aldean zituen baliozko gauzak  
Bergarako Ertzaindegian jarri dira  
ikusgai, lapurretaren bat izan dutenak  
galdutakoak identifikatzera joan daite-  
zen.

# Txandaka

TOKI IZENEZ

O bjetu geografiko  
desberdinei (herri, auzo,  
baserri, mendi...) "topo-  
nimo" deitzen diegu. Esan  
beharrrik ez dago, toponi-  
mia oso aberatsa dugu  
Euskal Herrian, neurri  
handi batean bere orogra-  
fia bereziagatik.

Azken urte hauetan,  
instituzio eta erakunde  
anitz arduratzen hasi dira  
euskal toponimiaz, eta hori  
poztekoa da. Baina badago lanik, mapa  
eta abarretan agertzen diren zenbaitek  
euskal itxura ere galdua baitute.

Bueno, goazen adibideetara, hori  
dateke eta interesgarrien. Aurreko  
igandean, San Blas egunean, Abadi-  
ñorako urteroko osteratxoaz gain,  
Eginen gustoko artikulu bat irakur-  
tzeko parada izan nuen. Orrialde osoa  
Aretxabaletako Urkuluko urtegiak eta  
handik hurbileko Ikasbide zentruak  
ari zen. Mami handiko gaia bada ere,  
orain soilik han agertzen ziren topo-  
nimoen arituko naiz.

Arrasateko auzoen izenak hartzen  
baditugu (Gesalibar, Garagartza,  
Uribarri, Udala, Musakola...) idazte-  
rakoan arazo handiegirik ez digutela  
sortzen ohartuko gara, ia-ia ahozkatu  
bezala idazten ditugu eta. Alabaina,  
ez da gauza bera gertatzen Aretxaba-  
letako auzoekin. Artikulu horretan  
Urkulu inguruko auzoak aipatzen zi-  
ren: "las anteiglesias de Azatza,  
Arientza, Korueta y Larriño".

Aldez aurretik aitortu beharra



Txipi Ormazabal  
(\*)

dago toponimiaz ari denak  
arazo zenbaitu egin behar  
diola aurre. Eta horien ar-  
tean, korapilatsuenetarikoa  
toki-izenen normalizazio-  
ari dagokiona da. Guztia-  
rekin ere, ez da bakarra,  
ez. Dena dela, itzul gaiten  
Aretxabaletako auzo-  
etara. Goian idatzita  
dauden bezala ahozkatzen  
dira horiek, oker ez bana-  
go. Eta horra nire galdera:

horrela idatzi behar al ditugu? Neure  
zalantzak ditut nik. Larriño alde batera  
utzita, besteek denboraren poderioz  
eraldaketa gaitza jasan izan dute: Ao-  
zaratza> Azatza (ahozkatu, halere,  
"asatza" ahozkatzen dugu); Arenaza>  
Arientza; Goronaeta> Korueta. Eta  
Arrasateko auzoekin gertatu ez bada  
ere, aldaketa da normalena, hizkuntza  
zer bizia baita.

Adibide horiek erakusten digute-  
nez, zenbait kasutan aldea handia da  
jatorrizkoaren eta egun hiztunek era-  
biltzen duten formaren artean. Ni kasu  
gehienetan jatorrizkoaren aldekoa bana-  
naiz ere, badakit kontua ez dela hain  
erraza. Edonola ere, Goronaeta zein  
Korueta nahiago ditut bide ertzeko  
txartel batean irakur daitekeen "Go-  
roeta" pitxia baino.

Bukatzer a noa. Orrialde berean,  
Ikasbide zentrua kokatua dagoen etxeari  
"casa-torre Ojala" deitzen zaio. Nik  
Otalora idatziko nuke, "Ojala" adiski-  
dearen baimenarekin. Gaurko, nahiko.

(\*) Irakaslea

**BURGALES JATETXEA**

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana 12, ARETXABALETA**

**Osorik  
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



Aste honetan erantzungo dute botikariek

## Farmazien auzia berraztertu

### Lehenengo sistema edo etxerakoa ezar daiteke

Gaueko goardiako farmazia zerbitzu zaharra berriz jartzeko posibilitatea aztertzen ari da Gipuzkoako farmazilarien kolegioa. Elkarte horretako ordezkariak, Bergara eta Arrasateko Udalekoek eta herri bietako botikariek aste honetan egindako bileran arazoa eztabaidatu ondoren, euren erantzuna ahalik azkarren emateko geratu dira botikariak. Aurtengo urtarrilaren 1era arte herri bietan zegoen goardiako sistema bera ezarriko ez balitz, alboko herrira botikatan joan ezina behar bezala kreditatzen dutenei etxera eramango litzaieke larrialdian behar duten botika.

Urtearen hasieratik eskualdetzea egin zenetik, protesta ugari sortu dira herri bietan, eta Udalek ere erabaki horren aurkako errekurtsoak ezarri zituzten. Bergaran gainera, 2.475 sinadura bildu ziren kalean eta Jaurlearitzako Osasun sailera zein farmazilarien kolegiara bidali, aurreko sistema berriz jar-

zteza eskatuaz. Gogoratu azken hilabeteetan eta gaueko 10etatik goizeko 9ak arte herri bietako botika bakarrak hartzen duela gaueko zainketa zerbitzua. Hilaren lehen hamabost egunetan Bergarako farmaziak izaten dira goardian eta Arrasatekoak bigarren hamabostaldian.

Bizkaia eta Gipuzkoako beste herri batzuen artean aspalditik erabiltzen den modua dela eta, hartu zuten farmazilariek eskualdetzeko erabakia. Gainera, gauez zerbitzu gutxi izaten dela eta azterketa batzuen arabera 100.000 biztanleko goardiako farmazia bakarra nahikoa dela ere agertzen zuten. Udal ordezkariak, ordea, zerbitzu kopuruari ez baina kalitateari begiratu behar zaiola eta, egin dute erabakia berraztertze eskaria. Horrez gain, herritarrei eskaintzen zaizkien osasun zerbitzuetan atzera egitea dela ere adierazi dute bi Udalek.

## Usteak uste

**M**ondragoeko Ertzaindegian Mikusi ahal izan nuenez, Ertzaintzak bitartekorik sofistika-tuenak dauzka gaizkileak antze-man, harrapatu eta fitxatzeko. Ertzaintzaren lana hori da eta ongi dago bere lana ondo egiteko beharrezko bitartekoak edukitzea.

Bildurra ematen du, hala ere, teknologia eta ahalmen izugarri horiek arrazoi politiko edo pertsonalak medio, hiritarren kontra erabil daitezkeela pentsatzeak. Ez naiz kimera hutsa planteatzen ari, egun hauetan hain zuzen, bost ertzain eta urte luzeetan ertzainburua izan dena epailearen aurrean bait daude, legez kanpoko telefono entzuketak egin izandako akuzaziopean. Giza eskarmentuak erakusten duenez, boterea duenari mugarik jartzen ez bazaio, bere probetxurako eta inoren kalterako erabil dezake botere hori.

Gaur eguneko bitartekoekin ez litzateke batere zaila izango tekla bat sakatzeaz bat edozein hiritarren fitxa polizialarekin batera, errentaren aitortpena, errolda eta osasunari buruzko informazioa pantailaratzea. Horren ondoan gizabanakoa biluzik agertuko litzateke, inolako babesik barik, eta hori onartezina da, nire ustez.

Hortaz eta espetxearen hotzaz pentsatzen jaitsi nituen Ertzaindegiko eskilarak.

Joxe Aranzabal

## LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldipe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12




## LEKIN

Ileapaindegi mistoa

Erguin 15, etxebehea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Arrasatekoei etxera eramango zaizkie aleak aurrerantzean ere

## Ezin Arrasate Press postaz bidali

### Postetxeak izugarri garestitu ditu prezioak

Orain gutxi arte, frankeo kontzertuari esker, aldizkari bat Arrasate estatuko edozein herritara bidaltzeko nahikoa zen pezeta bateko zigilua. Europako edozein tokitara igortzeko, berriaz, 100 pta. eta Ameriketara 280.

2.000 ale izan dira horrela astero-astero Arrasate Pressekin korreoz doan bidali izan dituenak.

Garraio Ministeritzak, oster, prezio berriak jarri ditu frankeo kontzertuarentzat. Lehen pezeta batekin egiten zena orain hamazazpi ordaindu behar dira, Europa eta Ameriketarako ere proportzio berean igo direlarik. Igoera ho-

nekin Arrasate Pressekin bi milioi eta erdi galduko lituzke urtero.

Aurrerantzean bada, eta horrelakorik gerta ez dadin, Arrasate Pressekin kobratu egingo die kanpoko harpidunei postaren gastua. Hauetxek izango dira AP kanpoan jaso nahi dutenek ordaindu beharrekoak: Hego Euskal Herri edo Espainiako edozein tokitan jasotzeko 1.000 pta. urteko; Europan 5.000 pta. eta Ameriketara 12.000 pta. urteko. Dirua Arrasate Pressekin Kutxan 404636-3 zenbakiaz duen kontuan sartu beharko da, noren harpidetza ordaintzeko den adieraziz.

### Jubilatuen aldizkaria

Jubilatu eta pentsiodunen etxeen artean kaleratzen den *Ekintza* aldizkarian parte hartu nahi duten jubilatuei jakin arazten zaie, nahi duenak honako lanok egin ditzakeela: artikuluak idatzi, aldizkaria eratu (artikuluak aukeratu, ordena ezarri eta aurkibidea egin), azala diseinatu eta marrazkiak egin, argazkiak bilatu eta aukeratu, ideia eta atal berriak proposatu, fotokopiak atera, aldizkariaren banaketa egin. Lan hauetakoren batean parte hartzeko prest daudenentzat bilera antolatu da apirilaren 15ean arratsaldeko 4etan Iturbide Egoitzan.

### Ecomovil

CADEMek datorren apirilaren 19an emango dio amaiera Ecomovil programari. Oraindik ere lekua eta orduak badaudenez, egin gura dutenentzat honako ordutegia dago: goizeko 10etatik 13etara eta arratsaldeko 3.30etatik 6.30etara, asteleheneetik ostiralera.

#### JAIOTZAK

Arias Verjano, *Asier*. Martxoaren 29an. Azkargorta Davila, *Markel*. Apirilaren 2an.

Martin Rodriguez, *Miguel*. 4ean. Nuevo Fernandez, *Mirian*. 6an. Agirrezabal Mateo, *Arkaitz*. 6an. Bañares Goyena, *Borja*. 8an.

#### EZKONTZAK

Manuel Palacios & M. Luisa Garcia. Apirilaren 6an. Elizaz.

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak


ARETXABAETA

URONDO  
elektrizitatea



Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak



Kontzezino 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE



SAMEGO  
GARBIKETAK

Urriburu 24,  
Tfnoa: 79 70 39  
ARRASATE



2.300 milioiko aurrekontua aurtengo urterako

## Aurrekontuak datorren astean

### Gaur hirigintzako gaiei buruzko plenoa

Hasiera batean aurrekontuak gaurko plenoan onartzeko asmoa bazegoen ere, hilaren 19an izango da hartarako plenoa, txostena prestatzen atzerapena izan dela eta. Aurrekontuen onarpena hasieran urtarrilerako zegoen pentsatua, maiatzeko hauteskundeen ondoren sartuko den udalbatzari trabarik ez egiteko. Beste urte batzuetan bezala, EAJ, EA eta HB alderdien aurrekordioan oinarriturik egin dira, eta 2.300 milioikoa izango da, Iturbide egoitza eta Aukea fundazioak barne.

Dirutza horretatik 1.100 milioi izango dira inbertsioen atalerako izendatuak, eta legealdiaren amaiera denez, garrantzi handiko inbertsiorik ez da sartu aurtengo aurrekontuan. Garrantzizkoen artean, Ospitale Zaharraren konponketa, Ferixalekuko pilotalekua eta Santa Barbarako parkea aipatu behar. Hirigintzarekin lotutako zenbait gai aztertuko dira, hala nola kanposantu berria, Santa Barbarako parkearen etorkizuna, Arau Subsidiarioen aldaketa batzuk, etab.

#### □ Hitzarmena


Udaleko Gobernu batzordeak, Novia Salcedo erakundearekin hitzarmena sinatzea erabaki zuen joan den asteleheneko bileran. Fundazio horrek ikastaro, lehiaketa, lanpostu, beka eta gazteentzat interesgarri diren beste hainbat gairi buruzko informazioa biltzen du. Hitzarmenaren ondoren gazte zerbitzuko informazio bulegoak informazio hortaz baliatzea izango du.

#### □ Epaiaketak

Astelehenean, Epaitegi Nazionalean Eloi Irazabal, Pedro Guridi, eta Ramon Bidaburu arrasatearrak epaituak izango dira, Felix Bengoa ofñatiarrarekin batera. Epaiaketara joan nahi dutenentzat Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordeak autobusa antolatu du, Arbolapetatik aterako den autobusa hain zuzen. Asteazkenean, Epaitegi Nazionalean ere, Rafa Etxabe arrasatearra eta Mikel Osa Bergarri epaiketa egingo zaie.

#### □ Letrakit Arrasaten

Letrakit erakusketa ibiltaria, Biteriko aparkalekuan izango da apirilaren 19tik 23ra bitartean. Euskaltzaindiak antolatutako erakusketa honek, Euskal Herrian alfabetagintzan eta euskal literaturak egindako urratsak ezagutzera ematen ditu. Erakusketaren mila metro karra-tutan, euskal literaturako klasikoak, gaur eguneko idazleak, alfabetatzearen historia... eta AEDren historia laburra ikusteko aukera izango da.




# BEROLAN

S. LORENTZO 53, 4. ESK. ONTTI TFNOA 78 29 63

### PROIEKTUAK, INSTALAZIOAK:



**KLIMATIZAZIOAN**



**ELEKTRIZITATEAN**




**SUTE-AURKAN**



**LEGEZTAPENAK**

### IBARRA Garajea S.A.



**EBRO  
NISSAN**


Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

# Monte taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.

• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Iletara. Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.



• ANSCO argazki makina bat.

## IRABAZLEAK

Argazki makina:

**UNAI  
BERGARETXE**

Telefonia:


**ERROSE  
MACHADO**

Erlojua:

**J. L. OLABE**

Afaria:

**ARANTZA BEITIA**



• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju automatikoa.




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01  
ARRASATE

*Erikite*

SOINUA • BIDEA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20  
ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 13  
ARRASATE

# Motz

## LEHIAKETA

### GALDERA

Nola  
deitzen  
da  
Arrasateko  
argazkilarien  
taldea?

I z e n a :

A b i z e n a :

T e l e f o n o a :

• Bidali erantzuna eta zure datuak  
Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA  
2 lagunentzako bidaiia  
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.



**KAT IDE**  
ARRASATE

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10  
ARRASATE




**Baskotour**  
BIDAIAK

Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22  
ARRASATE



**MECA**  
tailerrak

Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 1 2  
ARRASATE



Zaborrekin zer egin? Aspaldian airean dagoen galdera da, eta batzuen ustez tratamendu egokia ematen zaien arren, **EKI** ekologista taldeak gai horren inguruko **erakusketa** erakargarria antolatu zuen joan den asteburuan. Portaloian jarritako panel batzuetan, informazio argia ematen zitzaion herriari, eta horrekin batera firma bilketa ere egin zen Arrasateko kaleetan, indar nuklearraren erabileraren aurrean gobernuak jarrera alda dezan.



**Leintz Bailarako bertsolariek** ekin diote berriz ere urteroko jaialdia antolatzeari. Urtebetez kale egin ondoren, Apotzagako Auzo Etxe elkartearen bilduko dira afaltzera joan nahi duten bertsozale guztiarekin, ondoren bertso saio ederra eskaintzeko asmoz. Lehengo urteetako txapelketa bateko argazki honetan ageri diren guztiak ez, baina gazteak ere han izango dituzue. Jai ederra izan dadila...


◀ Gasaren hodiak sartzea dela eta, zula-zula eginda dago **Erguin kalea**. Erretena zabaldua egon arren, zuhaitzak ere bota egin dituzte. Ez dakigu baina, kaleetan ohi den bezala porlanean egindako zuloan berriz sartuko ote dituzten. Horrela izatekotan, ez ote leudeke hobeto goiko lorategian?

**BERRIRO ERE...**

**Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean**



**Cercas bajas 34, GASTEIZ**



**ZENBAKI**

**Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak**

Basabe industrialdea  
Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99  
**ARETXABALETA**





*Izen*  
**PROPIOAK**

● **Iñaki Dorronsoro**, 43, ataurra izendatu dute LKSkotuzendari, Xabier Rete-giren ordeiz. Iñakik Bilbon egin zituen Injinerutza ikasketak, eta Ampo-n lan egin ondoren, Goierriko kooperatiba taldeko zuzendaritzan izan da. Azken urteetan LKSkotuzendari sailerko zuzendari izan da.

● **Telesforo Zuria-rain**, 45, orendaindarra, egin dute Frantziskotarren probintzial berri. Hamazazpi urterekin egin zituen lehen botuak, eta azken 12 urteetan Arantzazuko Santutegiko Guardia izan da. Kargu aldaketarekin, Donostiarara joan beharko du, eta oraindik ez du izendatu Arantzazun bere ordeiz geratuko dena.

● **Nekane San Migel**, 38, abokatu arrasatearra epaile izendatu dute. Orain, Praktika Judizialeko Eskolara joan beharko du hilebete batzuz, destina hartu aurretik. Zuzenbide ikasketak Deustuan egin zituen eta 15 urte daramatza abokatu-tzan, abokatu laboral eta matri-monialista alorretan.

Mondragoeko **Ertzaintzak** guztiz informatizatuta dauka gaizkileak edo lege-hausleak fitxatzeko sistema. Detentua etxabea dagoen aulki hidrauliko batean jartzen da. Bere alboetan eta aurrez-aurre dituen hiru bideo-kamarek haren aurpegiaren irudiak hartzen dituzte eta lehen solairuan dagoen bideo sistemara eta ordenadorera bidali. Detentua aulkitik jaiki orduko, bere fitxa eta aurpegia Ertzaintzaren Bilboko ordenadore nagusian egon daiteke.



Epelde

◀ **Jabi Amaseme** eta **Irene Ugalde** urtarilaren 5ean ezkondu ziren. Bizi izatera nora joango, eta Mejikoko Guadalajarara! Bizitza zoriontsua, Ameriketa alde horretan.

**GOROSTI**  
Jatetxea

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

I  
R  
A  
T  
I

**Ferrerias kalea**  
Tfnoa: 79 71 80

# Ilusioa sortzen duten etxebizitzak

**Altamirako Babes Ofizialeko etxeak bukatu zituztenetik hilabete t'erdi bete da. Denbora horretan, familia batzuk joan dira bertara bizitzera, eta beste batzuk laster joango zaizkie atzetik. Etxe horiek, baldintza onenetan ez badaude ere, gehienentzat bizitzeko aukera berria izan dira.**

## Berri onak

**J**aurларitza Arrasaten Babes Ofizialeko 41 etxebizitzaren promotore izango da", zioten egunkarietako titularretan, duela bi urte Arrasateri buruzko berriak ematerakoan. "Etxe txikiak -jarraitzen zuten egunkarietako berriek-, 55 metro karratu izango dituzte, eta handienek aldiz, 76. Etxeen prezioa, metro karratuen arabera, hiru milioitik lau milioi t'erdirakoa izango da. Ordaintzeko 25 urteko epea izango da, %5eko interesarekin".

Berria, hasieran egunkari eta gainerako komunikabideei esker eta gero ahoz-ahoz, berehala zabaldu zen. Izan ere, inoiz etxebizitzarik eskuratzekotan, jende askorentzat irtenbide eta aukera bakarra promozio publikotik etor zitekeena zen. Ekimenaren helburua ere horixe zen: diru-iturri txikiena zutenei, etxebizitza duina esku-

ratzeko bidea ematea.

## Zerrendak egin eta aurrera

**A**ukera gauzatzeko asmoa hortxe zegoen, baina, aukera nori eman? Une horretan, Jaurларitzak

pilota Udalarari pasa zion, honen egoera desberdinak aztertuta eta erabakiak hartu zituztan. Udalak eskaera epea zabaldu zuen, eta eskatzaileen egoera ekonomikoa kontuan hartuz, aukeratuen zerrenda kaleratu zuen, bada

ezbada norbaitek erreklamazioen bat egitea nahiko balu.

Eskatzailearen egoera ekonomikoa, familia zenbat lagunekoa zen, ordura arte non bizi ziren eta zein baldintzatan, langabezian egoitea, elbarritu fisiko izatea, bertakoak izatea... kontuan hartzen ziren zerrendak egiterako orduan.

Behin Altamirara bizitzera joateko eskubidea zutenen zerrendak egin eta gero, erreklamazio epea ireki zen, eta esan behar da bi erreklamazio aurkeztu zirela, biek aurrera egin zutelarik.

## Etxebizitza duinak?

errendak egin zirenetik denbora luzea pasaturda, **Z**hasieran esan bezala, jaik familia batzuk Altamirara daude bizitzen. Behar bezala ixten ez duten leihoei, jarioa duten ur txorroek, pizten ez duten argiek, garbitu ezin den zikinkeria daukaten baldosek, puskatuta dauden axuleioak... eta antzerako detaileek bi gauza esan nahi



Jadanik Altamira auzoan lehen familiak bizitzen daude.

ditzakete: erabili diren materialak kalitate txarrekoak direla, edo lanean ibili direnak ez direla beste toki batzuetan ibiltzen diren bezain fin ibili.

Gaizki ulerturik egon ez dadin, idazten segitu aurretik, lehen aipatzen ziren detaile- txoak ez direla etxebizitza guztietan ematen esan behar da, batzuetan bakarrik. Gainera, dagoeneko jendea Altamiran bizitzen badago ere, oraindik hilabeteko epea dago Altamiran bizi behar direnek gaizki dagoenaren berri eman diezaieten obra egin dutenei, konpondu ditzaten.

*"Etxeak, berez, ondo daude-dio Altamiran bizi den batek-, politik dira eta zuten prezioagatik ezin da gehiagorik eskatu. Badira gauza batzuk hobeto egon zitezkeenak, eta egon behar zirenak, baina gauza txiki horiei ez diet garrantzi handirik ematen. Izan ere, egun hauetan abisatuz gero, konpontzen dizkigute eta kitto. Hobe legoke, hasieratik ondo egotea, baina horrek ez du garrantzirik.*

Nire ustez, okerrera zolua eta sukaldan jarri duten termoa dira. Baldosak jartzea ez zait oso ideia ona denik iruditzen, berez hotza delako, eta gainera baldosa zikinak jarri dituztelako, kendu ezin den zikinkeriaz beteta, alegia. Horretaz gain, argi-ındarrarekin egin dutena ez dut uste oso logikoa denik, hau da, sukaldan 150



Altamirako espaloiko zolua auzoko lehen pausuen lekuko

litroko termo elektrikoa jarri eta gainera sukalde elektrikoa. Pentsatzekoa da Babes Ofizialeko etxetan bizi garenok diru-iturri handiegirik ez dugula... bada, esaidazu dugun diruaren partetik handiena Iberduerori eman behar badiogu!"

#### Urbanizazioa

**A**ltamirako Babes Ofizialeko etxebizitzaren promotorea Jaurilaritza izan den bezala, Arrasateko Udala auzoko urbanizazioaz arduratu da, arduratzen ari da, eta arduratu beharko da, oraindik guztiz bukatu barik dago eta. Urbanizazioa amaitu eta gero auzoa nola

geldituko den esaterik ez dago. Hara gora igotzen den bat, lehenik dagoen aldapa izugarriaz ohartzen da, bigarrenik aparkalekuak markatu gabe egoteaz, eta hirugarrenez, oraindik lorategiak lur-sail soilak izateaz.

Horretaz aparte, bista ederra dago han goitik, eta gainera aldaparena Arrasaten ez da nobedadea.

### Txarrena, baldosadun zoladura eta sukalde elektrikoa dira

## Okerrago zeuden

**A**ltamirara bizitzera joan den jendea edozein auzotan aurki daitekeen jende normala da, askok baino diru gutxiago irabazten duen jende arrunta.

*"Etxe duinak diren? -zioen batek-, bada ez dakit. Jauregi batean bizitzen ohituta bazaude ez dira itango, baina ni bezala seme-alaba piloarekin 45 metro karratuko etxe batean bizi bazara, 76 metro karratu dituenara etortzen zarenean, horixe duina dela pentsatzen dizula".*

*"Eta orain zatorzte etxebizitzarekin dudan arazoez hitz egitera -zioen beste batek-, orain arte ijitoekin eta itokinak zeuzkan Udalako etxe batean bizitzen egon naizenean etorri ez zaretenean? Hemen primeran gaude eta!"*

Altamirako gehienak aurrekoen antzera mintzatzen ziren, ke xak bazeuzkaten, baina euren bizimodu berriaz ilusioz mintzatzeko joera nabariagoa zen.

**ARRASATE**

**UMEEN JANTZIAK**

Otalora 29, Tfnoak: 77 05 61

ARRASATE

Erdiko kale. 79 19 37

**ARRASATE**

79 87 62

# Arrasateko II. Moda Jaialdia



- Herriko denden jantziak.
- ASTOREren 91-92 udazken-negu kolekzioaren erakusketa.
- Diseinadore berriak.
- Etorkizuneko jantzien lehiaketa.

**Apirilak 20**  
**Amaia Antzokian**  
**Gaueko 10.30etan**  
**Sarrera: 500 pta.**  
**Antolatzailea: MAMBO 1**



# Abantaila bila

**Finalerdietako kanporaketan lehen zatia jokatu zen joan den astean. Irabazi zutenek alde txikia lortu zuten.**



**A**bantaila bila atera ziren joan den astean, finalerdietan dabiltzan lau taldeak. Ohizko ordu betea jokatu ondoren, Adelaida eta Bar Kajoi taldeak izan ziren abantaila lortu zutenak. Ateratako aldeari eustea izango dute igande honetako lana.


# IKER

**Xkey**

**FAGOR**

SUKALDE-ERAKUSKETA: Udala enparantza z/g, Tfnoa: 79 00 43

BAINUGELA-ERAKUSKETA: Zarugalde 52, Tfnoa: 79 99 42



**ILLARRAMENDI**

Geure lantegiak ditugu

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE

# JMA



**Potrozorri.** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Jon Uzkudun, Jon Osinaga, Xabier Mendiluze, Jose Ramon Perez eta Jon Arana. Makurtuta: Mikel Lopez de Arkaute, Iñigo Azkarraga, Aitor Azkarate, Jon Goikoetxea, eta Asier Zulueta.



**Sisepuede.** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Juantxu Zabala, Julian, Enrike, Iñaki Aranbarri, Jose Mari eta Jesus Mari. Makurtuta: Raul Agirre, Jose Antonio Canales, Jose Merchan, eta Jon Urrutia.



**Zelai.** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Javier Axpe, Fernando del Campo, Agustin Ibarluzea, eta Iban del Campo. Makurtuta: Perico Arriola, Filo, eta Javi del Campo.



**Sannan Hussein** Ezkerretik-eskumara. Zutik: Guillermo Melendez, Manuel Tena, Armando Jimenez, Rafa, Miguel Margu, eta Iñaki Etxenagusia. Makurtuta: Jon Beitia, Roberto Diaz, Jose Angel Casado eta Jon Roteta.

a.eme.interiores

GARIBAI 9  
20 500 ARRASATE  
(GIPUZKOA)  
Tlfnoa: 943-791503  
Telefax: 791489



Arrasateko Abesbatza Newcastle-ko S. Nicholas katedralean

# Anaitze baten historia

Patxi Montero

Julie Barnes britainiarra Arrasaten bizi eta Arrasateko Goikobalu abesbatzako partaide zela jakin izan zutenean, Llanelly galestar eskualdeko *Cantorion y Rhyd* abesbatzakoek interes handiz planteiatu zioten bi herrion artean (Gales eta Euskal Herria) kultur elkartrukatzea egiteko ideia; izan ere, oso berdintsua bait dira bi herriotako egoera sozio-linguistikoa eta konturatu abesteko zaletasuna.

Aldi berean, Newcastle-n bizi den Maria Angeles Uribarren arrasatearrak, bertako katedralean kontzertu bat emateko eskaintza luzatu zion Goikobaluri.

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

**UGARTE**

Industri hornidurak


Arrasate pasealekua

Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96

Telefax: 793412



Galestarrek *Jacky Do* folk taldearen bidez animatu zituzten afalordu eta ondorengoak. Guk ere trikitilariak eraman genituen. Bien artean, ezin egon dantzarik egin barik. *Jack y Dokoak* Arrasatera etorriko zaizkigu *Cantorion* y *Rhydekoekin* batera.



Lau ordutako bi entseiu egin ziren. Jimmy-k arlo musikala bere tokian gorde nahi zuen, eta baita lortu ere.

Maria Angeles Uribarreni zor diogu Newcastleko kontzertua. Argazkian, Goikobalua koengandik lore sorta jasotzen. Beste muturrean Peter haren senarra eta Newcastleko Unibertsitateko koruko zuzendaria, guk eskainitako txapela eskuetan duela (ez zuen gau osoan burutik kenduko). Atzean, gonbidatu gintuen Newcastleko abesbatza. Hauek ere gurera etorri nahi dute.

**K**oru zaletasuna oso handia da Galesen, *Cantorion* y *Rhydeko* Liz eta Megan-ek adierazi zigutenez. Entzute handikoak dira batez ere gizonezkoen abesbatzak; erabat errotuak galestar usadioan eta ezagunak oso atzerrian, herri bakoitzak berea dauka. Horregatik, hain zuzen ere, ez omen da erraza gizonezkoak lortzea koru mistoak eratzeko. Gaur egun sei koru misto inguru daude Galesen, eta federazio batean elkartu dira gizonezkoen abesbatzen aurrean

(hauetako bat genuen *Cantorion* y *Rhyd*) indar egiteko; aldi berean, gizonezkoen koruek ingelesez kantatzen duten bitartean, abesbatza mistoek galeseraz kantatzearen aldeko apostua dute egina. Galeserazko obrak ez dira falta (*Cantorion* y *Rhyd* abesbatzaren zuzendaria den Hywel Lewis bera konposatzaile ere bada); musikagintzaz gain, poesiagintzan ere tradizio aberatsa dute, oso estimatuak direlarik idazleok. Megan eta Liz-ek galestar kulturaren eta hizkuntzaren inguruko

**VICTOR RUIZ MELGAR**

Pinforea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE

**ARTE LENIZ**

koadro eta  
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE





Bi alkateren bisita izan genuen, Dinefwr eta Carmarthen-goak alegia. Azken hau argazkian Txito lehendakariarekin opariak elkartrukutzen.



Galestar Telebistako informazio zerbitzuak gure bisitarekin interesatu ziren eta, hiru minututako albistea eskaini. Argazkian, Esther Merino galestar ikusleei agurra bidaltzen, euskaraz.



Juan Bautista Agirre eta Julie Barnes. Arrasateko abesbatzaren aldetik antolaketaren zama eraman zuten.

nondik-norakoak kontatzen zizkiguten neurrian, euskarak urte batzuk direla pasatako egoerarekin zenbateraino parekatzen zen ikusten genuen: ingelesaren dominazioa, industrializazioak eragindako inmigrazioa, debekua eta errepresioa...

Badirudi, ordea, galesera berpizten eta uztartzen ari dela. Hogei urte inguru igaro dira "kastolak" sortu zirenetik eta gaur egun posible da ikasketa guztiak (unibertsitatea barne) galeseraz burutzea, bide hau hautatzen duena oraindik

gutxiengoa bada ere. Poliki-poliki, galeseraren ikasketa eta erabilera goraka doaz eta helduek gure euskaltegi eta barnetegien antzerakoak diren *Wpan*-etan ikas dezakete. Honekin batera abertzaletasun kutsua ere areagotuz doa, orain arte ahaztuta izan dutena.

Guzti hau jakinda, bidaiaren aurretik ere bagenuen nonbait elkarrekin zer ikusirik. Hizkuntz arazoak alde batera, erraza zen elkarri ulertzea.

## LASA-AGUILERA aholkularitza

- Lan-kontratuak
- Nominak
- Gizarte-aseguruak
- Babes juridiko-soziala
- Elbarritasuna
- Erretiroa
- B.E.Z.a
- Errenta aitopenenak
- Dirulaguntza ofizialak
- Aseguru orokorrak

Andra Mari auzunea 3, Tfnoa: 79 29 26 ARETXABALETA

# Britainia Haundiko konkista

Lanelly-ko Cantorion y Rhyd abesbatzak proposaturik jaio zen bidaia honen ideia. Halere, hasiera batean beldur zirela aitortu ziguten, gure erantzunaren, gure izakeraren beldur; baina, 28 ordutako bidaiaren ondoren, harrera-luntxean, trikitixak atera eta beraiekin batera dantzan hasi ginenean, duda guztiak ezabatu ziren. Garbi zegoen alaitasun hark borondate ona iragartzen zuela.

Bidaia honek bi zati zituen, Gales (edo Cymru, beraiekin dioten bezala) eta Newcastle hain zuzen ere, bi helburu oso ezberdinekin. Galeseko kasuan iruditzen zait abesbatzarena aitzakia zela, lotura abiapuntu bat; benetako helburua soziala zen, hots, egoera berdintsua bizi duten bi herriren artean harreman trinkoa sortzea. Egunezik egunera, lehen uneko alaitasun eta borondate ona areagotuz

## Baina kultur elkartrukatze hori, erabateko anaitze bilakatu zen

zihoazen, mamituz. Lau egun izan dira elkarrekin, lau afari batera, lau dantzaldi bata bestearekin, bi kontzertu (Cantorion y Rhydekoek "Maitia nun zira"



Hywel Lewis (txapelarekin) eta Jimmy, bi koruetako zuzendariak. Lortutako anaitasunaren irudia

ikasi zuten, jendaurrean bi abesbatzek elkarrekin kantatu ahal izateko), hiru aurreku, hamaika opari... eta irrifarreak nonahi. Ezpaineekin ez ingenuen elkar ulertu; bai ordea bihotzen bitartez. Aipamen berezia merezi dute hemen lau egunotan bertako hainbat familiaren etxeetan ostatu hartu duten Goikobaluko neskatxek; azken minutuetako negarrak eta besarkadak berez mintzatzen ziren. Azkenean, hasiera bateko "kultur elkartrukatzea" erabateko anaitze bilakatu da.

Haien balorazioa ere positiboa izan da zentzu guztietan.

Jakinmin handia sortu zuen gure bisitak eta erabat pozik gelditu dira, datorren urteko uztailean gurera etortzeko amorru bizian. Oso ederra izan zen Goikobaluzari luzatutako kritika: "Oso abesbatza orekatua da, ahots potentzia handikoa; batez ere horrenbeste ahots gazte izateari diogu inbidia. Bestalde, oso koru naturala da, ez gurea bezala, tinko eta uniforme, eta horrek bizitasuna isladatzen du".

**"Sekula eman dugun kontzerturik onena"**

Newcastlen kontzertu bera

zen garrantzitsua. Autobuseko ordu kontaezinak eta lau egun erotako nekeak medio, lur jota zeuden Goikobaluko kantariak. Halere, "sekula emandako kontzerturik onena" egiten jakin izan zuten. Bidaiaren helburuak modu bikainean zeuden beteta.

Newcastleko kontzertua telebista, irrati, prentsa eta kartel bidez iragarri zen, eta S. Nicholas katedraleko 900. urtemugaren inguruko ospakizunetan sartu. Ordubeteko kontzertuaren azken zatian Aitor Olea organojole gaztearen laguntza izan zuten Te Deum eta Aleluia abesteko (15.000 tubo dauzka S. Nicholas katedraleko organoak). Amaieran, ikuslegoaren aldetik, arrakasta-txaloak. Newcastleko koruak ere Euskadira etortzeko nahia azaldu zigun (batzuetan bazirudien abesbatza baino, euskal enbajada ginela, irudi ona uzten dutenetakoa).

Bidaia neketsua, bai horixe, baina ondo baino hobeto atera dena. Azkenik, Goikobaluz abesbatzak bere esker ona azaldu nahi die hain ondo portatu diren Cantorion y Rhydekoei eta Newcastleko M. Angeles Urribarren eta Peer-i, baita bidaiaren babesle izan diren Fagor eta Arrasateko Udalarari ere.

Hurrengo erronka igande honetan bertan dute Goikobalukoek, Ejea de los Caballeros-eko lehiaketan hartzen bait dute parte.

Onerako izan bedi!

**ESTETIKA ZENTRUA**

lurrundegia, opariak, jostailuak

**Z** a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

**URRATS**

**AHOLKULARITZA**

GARIBAI 3,

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE



Erori eta gero bizkor zutitu beharra dago, argazkiak ondo erakusten duenez arerioak horrelako uneak aprobetxatzen dituelako. Beti baloia eskuratzeko egoera onenean egotean dago gakoa.

**OPEL**   
 Hobeak esperientziaz

**TALLERES OLA, S.A.**  
 Erakusketa Arrasaten:  
 Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

  
**Kafetegia**

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

**EMAITZAK**



**Finalerdiak**

Zuloak 2 .....	Adelaida 4
Artzankos 2 .....	Kajoi 3

**Boskarrenetik zortzigarrena**

Argi Ibilii 0 .....	Arrasate Kirolak 1
S.I. Ugarte 5 .....	Cameruns 3

**ATEZAINAK**

*Jesus Moreno Saria*



**Javier Murguzur.**  
**11 gol.**

**ZAPATIDOS**

OINETAKOEN AUTOZERBITZUA

Olarte 9, Tfnoa: 79 41 29  
 ARRASATE

**ALCANADRE**  
**TABERNA**

**Zenbaki saritua:**  
**58.642**


**Ebaki eta gorde txartel hau!**

Trikitik eta Kajoi tabernak Walkman bat zozkatuko dute astero. Astero aterako da zenbaki bat, eta saria jasotzeko epea 6 egunekoa izango da. Sariturik agertu ezean, hurrengo asterako gordeko da saria, eta antzeko sariren batekin trukatu ahal izango da Trikitin.

62768

**KAJOI**  
**TABERNA**

Erdiko kale 22, ARRASATE



# Txutak

## Azken txanpa

**F**inalerdietako lehen partiduak jokatu eta gero, esan daiteke *Adelaida* eta *Bar Kajo*i taldeek finalera iristeko aukera handienak dauzkatela. *Adelaidak* 4 eta 2 irabazi zion *Zuloak* taldeari, eta *Bar Kajo*ik 3 eta 2 *Artzankosi*. Beraz, eta oraindik berriz elkarren aurka jokatu behar badute ere, aukera gehienak lehen aipatutako *Bar Kajo*i eta *Adelaida* taldeentzat dira.

Hortaz, datorren igandean, hamaiketarik aurrera, jokatu diren bi partiduak jokatu arte, ezin

izango da jakin finala zeintzuren artean izango den. Ordura arte, hobe ezer ez esatea, esandako guztia eritzia ematea izango litzateke eta.

Finalerdietatik aparte, boskarrenetik zortzigarren postura artekoak erabakitzeko partiduak ere jokatu ziren, edo hobe esan, jokatu behar ziren, bat bakarrik jokatu zen eta. *Suministros Industriales Ugarte* taldeak 5 eta 3 irabazi zion *Camerunsi*, eta *Argi Ibili-Arrasate Kirolak* partidua ez zen jokatu, *Argi Ibili*koek ez zirelako aurkeztu. Normala denez, *Argi Ibili* kanporatu dute.

*Beñardo Kortabarria*

## DATORREN ASTEBURUAN

### FINAL ERDIAK

Igandean 11etan,  
Zuloak ..... *Adelaida*

Igandean 12etan,  
Artzankos ..... *Bar Kajo*i

## GOLEGILEAK

### *Mikel Otxoa Saria*



Elizaran

Jose Martin Elizaran (*Argi Ibili*).

*Argi Ibili* taldea txapelketa guztian zehar gol gehien egin dituen taldea izan da. Beraz, ez da arraroa goleatzaileen sailkapeneko buru bertako jokalaria izatea. Taldeari eskertu beharko dizkio lortutako golak.

# JOMA

JOSE MARI GALLASTEGI Y CIA. S.A

Gipuzkoa Etorb. 32,  
Tfnoa: 79 16 55 ARRASATE

# UDALAITZ TABERNA

# BASTIDA

- Mekanografia
- Takigrafia
- Informatika
- Kontabilitatea
- Klase partikularrak

Ferrerias 44, etxebehea, Tfnoak: 79 32 16 / 79 77 13  
ARRASATE

## URONDO ELEKTRIZITATEA

Nafarroako Etorbidea 11,  
Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

Antton Del Campo

## Injinerua etxegintzan murgildurik

**J**aiotzez bilbotarra izan arren, hamar urterekin etorri zen Arrasatera. Orain 46 ditu. Injinerua da eta matematika, astronomia eta antzeko gaiak artikulu asko idatzi ditu Elhuyarren; zientziaren inguruko gaiak euskaraz ikutzen aintzindaria euskaldunberria izan arren. Orain etxegintzan dihardu.


— Elhuyar bezalako aldizkari zientifiko bateko kolaboratzailea izanik, nola ikusten duzu mundu hori euskaraz?

— Askok aurreratu da, Elhuyar taldeak batez ere. Aldizkari zientifikoak gain, testuliburuak eta beste zerbitzu batzuk ere baditu. Terminologiaren arloa landu izana oso garrantzitsua da, nik adibidez gaztelaraz nola esaten den jakin arren, ez nuen euskarazkorik topatzen. Egon badaude, baina erabiltzen hasi behar da, eta gogorra hitzarekin adibidez, ñabardurak bereiztea garrantzitsua da gai batzuetan. Elhuyar taldeak eta inguruko beste batzuk lan hori egiten asmatu egin dute.

— Karrera zientifikoak dira gaur egun Unibertsitatean euskaldunduen daudenak. Mailaren aldetik, nola ikusten dituzu?

— Ez dut gehiegi ezagutzen egoera, baina zailena, hasieran batez ere, irakasle goa prestatzea izango da. Hala ere, badago jendea, eta kolpetik urte gutxian dena euskalduntzea zaila izan arren, argi dago posible dela. Gero beste gauza bat izango da administrazio aldetik eta laguntza aldetik nola joango diren gauzak.

— Hori ikasketetan, baina lan munduan sartuta, euskaraz ikasten duten horiek ba al dute aukerarik arlo jakin ho-



rietan euskaraz lan egiteko?

— Hori zailagoa da. Nik etxegintza arloan lan egiten dut, eta igeltsero, elektrikari eta antzeko lanbidetako zenbait arrasatearrekin euskaraz izan daitezke harremanak, ahozkoak batez ere. Beste tekniko batzuekin, saltzaile, etxegile eta promotoreekin zailagoa da maila horretan. Euskaraz ikasten dutenek izango dute modua ahalegina ipiniz gero. Udalarekin ere, Arrasateko kasuan harreman gehienak euskaraz izan ditzakegu. Posible da eta egin egiten da.

— Euskal kulturaren

mundua hurbiletik jarraitu duzu azken urteotan Arrasaten. Zer eritzi duzu?

— Batez ere ikusten dut gazteak direla gauza gehien bultzatzen dituztenak. Pertsona bat aurrerakoia baldin bada, feminismo mailan, ekologismo mailan, beti euskararekin zerikusia du, zerikusi handia gehienetan. Horrek esan nahi du momentu honetan Arrasaten euskara ingururik aurrerakoenetan dagoela. Etorkizuna baikor ikusteko modua ematen du horrek. Azken urtetara begira, zaila da une batean laburtzea, baina ba-

tzuetan pentsatzen da esfortzu handiak egiten direla, urte batean egin eta hurrengoan ere bai, eta batzuk desanimatu egiten dira. *Euskal Herriaren Euskaraz*-en inguruan biltzen ginen eta "bileritis" genuela esaten genuen: bildu eta bildu eta emaitza konkretu gutxi. Orain AEDren ekintzetan ez da hori gertatzen. Erderarekin konpetentzian sartzeko, dirua eta administrazioa sartu behar da.

— Etxegintzaren munduan lan egiten duzunez, zein egoeratan ikusten duzu arlo horretan Arrasate?

— Beti esaten da etxeak garesti direla Arrasaten, baina hori toki guztietan gertatzen da. Kontua da lurra oso garestia dela, etxearen prezioetik %25a gutxienez. Etxegileek dirua irabazteko egiten dute lan, eta merkatu librearen denez, prezioak ez dira behetik jartzen, goitik baizik. Zenbateko prestamoa eska dezake jendeak? hainbeste-ko prezioa.

— Estetika eta kalitate aldetik?

— Arrasaten etxebizitza normalak egiten dira. Araudi asko dago paperetan idatzita, baina gero ez dira betetzen, ez delako paperean jarritakoa kontrolatzen. Udalak lokalen isolamendu akustikoa kontrolatzen du, baina hori bakarrik.



Hirigintza aldetik, non kokatu eta hori bai, gero eta hobeto doa. Estolderian, adibidez esaten da urte batzuk barru depuradora egingo dela bailara mailan, baina haraino ur zikina eta garbia bakoitza bere aldetik eramaten hasi beharko dugu. Etxeak eraikitzeiko momentuan kontuan hartu beharrekoak dira, bestela gero kaleak jaso beharko. Arrasaten zer-bait eskatzen hasi dira alde horretatik.

— **“** Arrasaten euskara ingururik aurrerakoenetan dago sartuta



## Felix Izeta txapeldun

Hilaren 1etik 7ra bitartean Abaroako aretoan burututako Euskadiko V. Xake Txapelketako irabazlea Felix Izeta gipuzkoarra izan zen. Izetak ez zuen areriorik izan, eta jokaldi batean ezik, beste guztietan irabaztea lortu zuen, maila izugarri ona erakutsiz. Vallina eta Hernando arrasatearrok ezin izan zuten ezer asko egin, baina hala ere portatu ziren. Txapelketaren antolakuntzari dagokionez, aurrez espero zen bezala, ia dena ondo atera zela esan behar da. Dena dela, jokalaria batzuk zenbait unetan, Abaroako zarataz kezu agertu ziren. Ezin, bada, guztia ondo egin!



## Arrasate Kirolakek galdu

Aspaldian bolada ona hartuta zuen Arrasateko eskubaloi taldeak, kanpoan zein etxean partiduetan irabaziz. Joan den asteburuan Usurbilgo taldea izan zen Musakolako kiroldegiko bititari, eta garaipena eramatea ere lortu zuen, 21 eta 29ko emaitzaz. Arrasatearrak ez ziren oso fin ibili, kategoriari eutsi nahi badiote joko hobetzea ezinbestekoa zaielarik. Asteburu honetan jai izango dute arrasatearrek, eta baliteke jai egun horiek ondo etortzea joko eta konzentrazioa berreskuratzeko.

## Itzulia hemendik ere.

Euskal Herriko beste hainbat tokitik bezala, Euskal Herriko Txirrindulari itzulia Arrasatetik zehar pasatu zen, asteartean hain zuzen. Hemen parean Tony Rominger suitzarra pasatu zen tropeletik ihes eginda, nahiz eta gero Gasteizko helmugara iristerik lortu ez. Badirudi, Ibardinen irabazi eta gero, Chiapucci italiarrak itzulia irabazteko ez duela arazorik izango.

**K**abia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

**BRANKA**  
*jatetxea*

Eguneko menua eta karta

**JABIER**


**VALLINA**

**Xakerako  
berreskuratua**

Hemen atera izan ditugun kirolariak, gehienetan garaipenen baten ondorioz atera izan ditugu. Gaurkoaren kasua ez da hori, bere garaian eta bere mailan garaipenak ezagutu baditu ere. Jabier Vallinak Euskadiko Xake Txapelketan hartu zuen parte, Hernandorekin batera Arrasate ordezkatzuz. Egia esan, berak horrela zioen behintzat, txapelketa gaizki joan zaio. "Aspalditik ez nuen parte hartzen txapelketa batean. Hogeitabi urte nituenetik ia xakean jokatu gabe egon naiz, eta ez jokatzeko hori asko nabaritu dut. Zortzi urte ia ezer jokatu barik denbora luzea da, gauza asko ahazten dira".

Berezibarrek, Arrasateko Xake txapelduna denak, ezin zuela jokatu eta, Euskadiko txapelketako antolatzailleak Jabier Vallinaz gogoratu ziren. Gonbidapen horrek Vallinagandik baiezeko erantzuna jaso zuen, Xakearekin zeukan lotura berreskuratzeke balio izan diolarik. "Xakean jokatzeko hamahiru urte nituela hasi nintzen, hogeitabi urte bete arte horretan ibili nintzelarik. Orduetik hona, noiz behinkako partida batzuk izan ezik, esaterako Arrasateko Txapelketakoak, ez dut ezer jokatu. Euskadiko Txapelketan jokatzeko, nahiz eta emaitza onik lortu ez, niretzat poz-

**PODIUMA**



garria izan da, eta gainera jokatzeko segitzeko gogoia eman dit".

Maila oneko txapelketa izan dela dio Vallinak, berdindutakoa, baina sorpresa gutxi eskaini dituen. "Jokaldietan berdintasun handia egon da. Hori xakean ez da arraroa, jokaldi gehienak tablatan bukatzen bait dira. Ezin daiteke esan sorpresarik egon denik, nazioarte maila zeukaten jokalariek lehen postuak eskuratu dituztelako. Beharbada, sorpresa handiena irabazlearena izan da, Felix Izeta Arrasatera etorri aurretik oso gaizki jokatzeko ibili delako".

Xakean jokatzeko gain, Vallinak lantegi batean egiten du lan eta agian horregatik ez du behar besteko denborarik eskaintzen xakeari. "Nazioarteko maizuek, Izetak esaterako, egunero zortzi ordu dauzkate xakean aritzeko. Gu baino gehiago ikasteko aukera daukatenez, normala da guk baino hobeto jokatzeko eta gure aurka jokatzeko dutenean, irabaztea".

◆ **Centraljet irabazle**


Centraljet taldeak, joko kontrolatuz, ez zuen aparteko eragozpenik izan Argaray taldearen aurkako partiduan garaipena eskuratzeko. Argaray taldea, joan den denboraldian lehen mailan egon zen, baina hemen ez zuten maila hori erakusterik izan. Partiduko lehen minutik, arrasatearrek, komeni zitzaizkien joko egin zuten, baloiari denbora luzez eutsiz. Azkeneko emaitza 74 eta 67koa izan zen. Datorren astean arrasatearrak Donostiara joango dira Juven taldearen aurka jokatzera. Partidu zaila.

◆ **Torrentegiren alde**

Jakina denez, Herri Torrontegi moto-gidari bizkaitarra, dirua lortzeko arazo latzekin dabil aurtengo denboraldian. Hori dela eta, Bergarako lagun talde batek zozketa bat antolatu du, Herri Torrontegiri laguntzeko dirua atera asmoz. Bergaran ezezik, Arrasateko sei tabernatan ere, jarri dituzte zozketa horretarako baliogarri diren boletoak. Motorzaleei esan behar zaie, bi motor zozkatzen direla, boleto bakoitzak 200 pta. balio dituelarik. Norbaitek Torrontegiri lagundu nahi balio, kontu korrentea ere ireki da, ondorengoa: Santander Bankuetxean, 82.524

◆ **Harrobia zaintzen**

Zainduz gero, harrobiak bere fruituak ematen dituela esan ohi da. Saskibaloian gogor ari dira lanean aspaldi honetan, eta horren ondorioz bi gazte sartu berri dituzte Centraljet taldean: Igor Urisabel eta Raul Moreno. Igor Urisabel bergarra da, 17 urte dauzka eta 1.97 metro neurtzen ditu. Raul Morenok hamabost urte dauzka, orain artean Arrasateko jubilen mailan jokatzeko zuten, base postuan.



**EGVZKIGRAF**

**Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia**

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

## 22ko jaialdiaren balantzea Bai, badakit, baina...

**B**ai, badakit aspalditxo izan zela Arrasate Pressek antolatutako jaialdia eta tartean aste santuko oporrak izan direla, baina ez nuke gertakari aparta hura kantoi honetan aipatu gabe utzi nahi.

Badakit atek oso berandu zabaldu zirela eta jaialdia beranduago hasi zela eta guzti hori pasada hutsa dela, baina hori denon artean konpondu beharreko arazo da, ze jaialdiak iragartzen diren orduan ez da inor agertzen eta inor agertzen ez delako ez dira jaialdiak hasten.

Badakit jaialdia oso luzea izan zela, eta agian une ba-

tzuk motelagoak izan zirela, baina bertan bizi izan genituen une zirraragarriek ahanztarazten dituzte orduko nekeak eta agobioak.

Badakit Tapia eta Leturiak eragin handiagoa izango zuketela jende haren aurrean talde osoaz agertu izan balira, baina horregatik izan zen nabarmenagoa trikiti soilarekin lortu zuten harrera ona.

Badakit Mahoma gizenduta dagoela eta RIPEkoei nabaritu zitzaizela urteetako geldialdia, baina jakin nahi nuke oraintxe lanean diharduten taldeen artean zeinek sor dezakeen entzulegoarekin han lortu zen komunikazioa.



Badakit Minxoriak taldekoek "Aitormena" deskatxarratu egin zutela eta aukeraren askotxo kantatu zutela, baina ea nork jarraitzen duen


-han ikusitakoaren ondoren berbenetako talde kaskarra besterik ez delako ustean.

Badakit gonbidaturen batek kale egin zuela, baina Ruper, Fermin eta Natxo Zikatrizen agerraldiak ikaragarriak izan ziren.

Badakit, jakin, akatsak izan zirela baina jaialdi hark eman zigun astindua beharrezkoa genuela -Pablo Cabeza dixit-, eta zabaldu dituen bideak hor gelditzen dira urratu nahi dituenarentzat.

Eta bazekiat, Patxi, zoratuta ibili hintzela jaialdia prestatzen, baina garbi zegok bete-betean asmatu huela. Zorionak, tio.

Mikel Irizar



# HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE  
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61  
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Goiain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua  
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53  
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO



# Batuta

## Patricia Esparza

Patricia Esparza, astekariko sail honetan agertu diren eta agertuko diren gehienek bezala, txiki-txikitatik ezagutu du bere inguruan musika giroa. *"Ama piano irakaslea zen eta da. Etxean anai-arreba piloa gara eta denok dakigu zerbait jotzen. Batek pianoa jotzen du, beste batek bibolina, besteak biola... eta nik zerbait aukeratzearren, biolontxeloa aukeratu nuen"*.

Oraindik etxean orkestraren bat egiteko goizegi dela dio Patricia barre artean, aurrerago zerbait pentsatuko dutela. Etxeko hasierak alde batera laga, eta Arrasaten normala denez, Arrasate Musikal akademiara bideratu ziren Patriciaren pausuak. *"Lehenbizi solfeo ikasi nuen, eta gero tresna aukeratu, txeloa nire kasuan. Urte batzuk Arrasate Musikalen pasa eta gero, hamabi edo hamahiru urterekin, udako ikastaroak egiten hasi nintzen. Horrelako batean, Santanderren nengoela, Arizkuren maisua ezagutu nuen. Gutxi gorabehera pare bat astetan elkarrekin egon ginen, asko hitz egin genuelarik."*



*Txelo Talde Iberiarra egiteko ideia ere sortu zen. Ordutik, hilean bi aldiz Bartzelonarako bidaiak egiten dit, entseiatzera joateko"*.

Handik eta hemendik ibiltzeak, nahiz eta etxean egotea gustokoa duen, Arrasateko musika maila zer nolakoa den ezagutzeko balio izan dio. *"Bizi zaren tokitik ateratzen ez bazara, ezin duzu jakin kanpoan zer egiten den, eta orduan daukazunarekin edo ezagutzen duzunarekin konformatzen zara. Arrasaten horixe gertatzen da. Uste dugu hemen oso maila ona daukagula, eta gero kanpokoak ikusitakoan konturatzen zara hori ez dela egia. Dena dela, nire oinarriak hemen hartu nituen eta hori eskertzekoa da. Gero irakasle hobeak izan ditut, ordu asko sartu ere, eta jende askoren lana ezagutu, baina erroak hemen daukat"*.

## Kanpora ateratzen ez bazara, etxekoarekin konformatzen zara

## Txio txioak

■ Arrasateko Trikitilari eskolakoak Galesera jona ziren Goikobaluko gongonbidapenez, egundoko giroa sortuz. Bidaiaren bukaeran koplak hauek abestu zizkieten abesbatzakoei:

Arantza beltzak ostuak txiki  
puntaren zaku loratu  
orain hemendik behar genduke  
zuzendaria koplatu

Eder zeruan izarra eta  
itsas aldean lizarra  
koru hontako Jimmy Jaunak  
urregorritzko bizarra

Urregorritzko bizarra eta  
diamantezko espalda  
berori bezin gizon presturik  
Arrasate herrian ez da


Juan Bautista gazte konpondua  
hori kolore gorria  
zure aurpegia iruditzen zait  
krabelinaren orria

Krabelinaren orriarekin  
larrosa maiatzekoa  
egin duzun lan guztiagatik  
eskerrak bihotzekoa.



Sagardotegiko azken jaiaren trikitilariak giro aparta sortzen jakin izan zuten

"EDERTU"  
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

F  
A  
N  
C  
Y

# FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

# Alfabetizazioa dela eta...

## Orkatz Scout Taldea (II)

**T**rebeak. 16 eta 18 bitarteko eta scout taldearen barnean azkenengo etapen bizi diren neska-mutilak dira. Etapa honek heziketa edo prestakuntza du helburu, batez ere; beraien interesen inguruan, eta hurbileko errealitatea -zehatz-meatz, Arrasaten zer dagoen- eza-gutzeko asmoz, hitzaldiak eta debateak antolatzen dira. Aldi berean atsegin dituzten ekintzak ere burutzen dituzte, hala nola, mendizaletasuna, eskalada, etab.

Kide bakoitzak eta talde bakoitzak aukera bat egin behar du: heziketa-aukera izan daiteke (gero scout tal-



dearen monitorea izateko, aurduradunen prestakuntza da honen helburua) edo herri-aukera (Arrasateko errealitatearekin konpromezua hartzerazuzendurikoa) edo fede-aukera (kristau fedearen konpromezura zuzendurikoa).

Arrasateko Olentzero

antolatzen du talde honek.

Asteroko bileratik kanpo-larunbata da ekintzetarako eguna-hiru kanpamentu egiten dira: Gabonetan eta Aste Santutan lau eguneko eta uztailean hamabost eguneko.

Kanpamentua, batez ere uztailekoa, urtean zehar

egindako ekintzen laburpena eta gailurra izaten da: bertan bilerak, jolasak eta irteeretatik, kanpo, erlazio eta konbiventzia estua gordetzen da eta kide guztiek taldearen eta bere bizipenen kontzientzia hartzen dute.

Arrasateko Orkatz Scout taldea Gipuzkoa mailan beste taldeekin koordinaturik dago eta Euskal Herriko Scouten kide da. Koordinazio honek arduradunen prestakuntzarako eta esperientziak zabaltzeko eta elkartrukatze balio du.

Orkatz Scout taldearen lokalak Abadetxe azpian daude eta Mikel Lizarralde da arduraduna.

Klarion taldea

# BIDEO-EMANALDIA

## Arka galduaren bila

**Tokia:** Monterron Kultur Etxea


**Eguna:** apirilak 13

**Ordua:** arratsaldeko 4etan

**Prezioa:** 50 pezeta

**Sarrerak:** Monterronen

**Antolatzailea:** Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



• Juan Luis Ordorika •



IMI zentruko monitoreo

**J**uan Luis Ordorika-ren autoak hamabost urte ditu eta berebil zaharra izanda ere, ez du aparteko aberia edo istripurik izan. "Honekin ezin da bizkor ibili, indarrrik ez duelako, baina ibili seguru ibiltzen da". Zebrabide guztiak ez ditu errespetatzen, baina hala ere ez diote isunik jarri, ezta globitorik egin ere. "Aldamenean joanda gidariari globitoarena egitea tokatu zait, baina neu gidatzen noala, sekula ere ez". Auto berria erostekotan, Juan Luisek "txiki bat" erosiko lukeela dio.

**TXANPA**

**Motor hau  
ZUREA  
izan daiteke**

Zure erosketak **TXANPA**n egiten badituzu, guk emango dizugun txartelaren numeroak uztailearen 9an egingo den **ONCE**ren zozketako lehen sariaren azken bost zenbakiekin bat badatoz, **YAMAHA** motor eder honetan irtengo zara.

Sartu barrura,  
irten motorrean

Yamaha  
Artistic  
Sec Jog



Daniel Lasagabaster

# Arantzazuko Gesaltza ingurua

**A**skok jakingo duzue non dagoen inguru hori, Gesaltza izenez ezagutzen den Arantzazuko auzunea edo hobeto esanda, baserrigunea Duela gutxi konturatu nintzen Arantzazurako bidean zegoen harrobia eraitzi edo bota egin zutela: bertan goraxeago hartzen da bidea, pista inguru horretara joateko.

San Jose egunean abiatu ginen bertara: Arrasatetik urten eta goizeko 10.30etan edo saihesbidetik San Prudentzio eta Oñati aldera hartu genuen. Egun zoragarria bizikletan ibiltzeko; makinatxo bat zegbilan bizikletan.

Ostean, Oñatitik Arantzazurantz joan, erripa gogorra



Besaidek iaz antolatutako martxa

igaro eta Araotzerako bidegurutzetik Gesaltzaraino.

Gesaltzatik dagoen panoramak merezi du benetan; ingurua baserriz, eta landaz josita dago. Bertatik Arantzazu aldea, Aloña, Urbia, Aizkorri eta hainbat tontor ikus daiteke. Guk geuk, Arantzazu aldera hartu beha-

rrean bideari jarraitu genion eta halako batean baso batera heldu ginen: bertan txabola edo aterpe moduko bat zegoen; inguruan sua egiteko tokiak eta mahai ugari zegoen. Leku aparta bazkaltzeko!

Hortik beherako bide bat hartu eta Araotzen agurtu ginen. Pentsa ezazue zelako it-

zuli polita egin daitekeen! Jaturabe urtegia baino gora-gorago agertu ginen, Araotz baino lehenxeago. Jaturaben jende mordo arrantzan, Antza, orduan egunean hasi zen denboraldia.

Neketsuena falta zitzai-gun: Araotzetik jaitsi eta gero Urtiagainera igotea: sekulako aldapa dago eta horixe izango da ibilbide osoan dagoen lekurik zailena eta gogorra.

Gora heldu eta patxada-patxadan Arrasaterantz jo genuen, arratsaldeko 3.30etan edo.

Igande geldo eta beroetan egiteko ibilbidea da. Nora joan ez dakizula zaudenean, badakizu inguru horretako maldak zain dituzula.

K. U.

## ARRASATEKO II. IHARDUNALDIAK

UEUren  
laguntzaz

### HITZALDIA

Apirilak 16, asteartea

#### NEKAZARITZAREN EGOERA DEBA GARAIAN

• Hitzaldi honetan, gaur egungo nekazaritzaren egoera Deba Garaian azalduko da datu objetiboak emanez eta ondoren irteera posibleak aipatuko ditu hizlariak.

- Tokia: Monterron Kultur Etxea
- Ordua: Arratsaldeko 7etan
- Hizlaria: **BALENTIN GABILONDO**  
Deba Garaiko EHNEko ordezkaria.



Multisol betaurrekoak: 1.500 ptaz. aurrera bakarrik.



Egunean, hire moduan  
eta modak txunditurik  
baldin bahabil, MultiSol  
betaurrekoak hireak dituk!  
Laster, hator haientzat!  
1.500 ptaz. aurrera bakarrik  
eta alkandora bat kitorik.  
MultiSol duk hirea!

**Hirea duk!**



San Pedro, 22 - BERGARA  
Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
J. M. Baradian Enparantza - ORDIZIA

**Bergara: 76 15 75 Arrasate: 79 29 95 Ordizia: 88 99 88**



**ARRASATEko UDALA**



28/1990 Dekretu foralaren arabera, eta beren jabeen inolako zaintza eta kontrolik gabe, Arrasate Udalerriko mendietan dabilzan ahuntz-aziendak akabatzeko asmoz, Gobernu Batzordeak 1991ko martxoaren 11ko bilkuran, honako hau erabakitzuten du:

**EDIKTUA**

Kontuan hartuz libre eta kontrolik gabe dabilzan ahuntz-aziendek sortzen dituzten arazoak, bai mendietako zuhaiztietan eta bai fruituzaintzara utzitako lursailetan Arrasateko Udalerrian, gehieneko epe bezala 1991ko maiatzaren 12 artekoa ezartzen da, ahuntz-azienden jabeek erretira ditzaten.

Aipatu epe hori iragan ondoren, maiatzaren 2ko 28/1990eko Foru Dekretuko 4. artikulua xedatutakoaren arabera (1990eko maiatzaren 11ko GAO) egokitzen diren ehizaldiak antolatu dira, abandonatuak dauden ahuntz-aziendak akabatu arte.

Arrasaten, 1991ko martxoaren 27an  
Alkatea

Aste gazte

“Gazteen gaitasun sortzaileak libre eta armonikoki garatzeko bitartekoak jartzen ez diren artean, gizarte eta lan munduan ezin eska dakioke konpromezurik”.

(FEMP elkar-goaren ikerketa batetik hartua)

**Bekak**

• “Jovenes Cooperantes’ 92” Programan parte hartzeko deialdia. Eskatzaileak: 29 urtetik beherako lizentziatu edota diplomatuak. Dirulaguntza-kopuru ezberdinak, kasuen arabera. Epea: apirilak 22. (BOE 91-04-02).

• Tratamendu dokumentaleko postgraduatuaren heziketa-bekak. Ingelesea, frantsesa, alemana edo italiera dakiten lizentziatuentzat.

Iraupena: urtebete. Dirulaguntza: 1.400.000 pta. Epea: maiatzak 12. (BOE 91-03-12)

• “Grupo Endesa” Arte Plastikoentzako bekak. Eskatzaileak Estatu espainoleko edozein artista, adin mugarik gabe. Iraupena: 2 urte. Dirulaguntza: 3 milioi. Epea: ekainak 30.

**Lanpostu-deialdiak**

• Getxoko Udalak honako lanpostu hauek betetzeko deialdia egin du:

- Administrazio Orokorreko teknikaria.
- Erdi mailako Kontabilitate teknikaria
- 12 udaltzain.
- Menpeko 2.

Instantziak aurkezteko epea: apirilak 21.

**Ihardunaldiak**

• Apirilak 12, 13, eta 12: “Amnistia Internacional” Erakundearen Asanblada

Orokorra. Gasteizen, Europa kongresu-jauregian.

**Lehiaketak**

• Ipuin-lehiaketa. Gaztelaraz, 18 eta 35 urte bitarteko idazleei zuzendua. Gai librea. Ipuinek hiru eta sei orrialde bitartekoak izan behar dute. Lanak aurkezteko epea: apirilak 27.

• “Gernika” VI. Literatur Lehiaketa. Olerkia eta Ipuina. Euskaraz ala gaztelaraz. Sariak: modalitate bakoitzeko 50.000 pta. eta trofeoa. Lanak aurkezteko epea: apirilak 30.

• Nazioarteko II. Umorezko Ipuin Lehiaketa. Gaztelaraz. Lanek hiru eta sei orrialde bitartekoak izan behar dute. Sariak: 1.000.000 pezetako sari bi. Epea: 91-04-30.

• Gasteizko Jaiak iragaritzeko Kartel Lehiaketa. Neurriak: 70x50. Sari bakarra: 200.000 pta. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 24.

• Argazki-Lehiaketa (Bilboko Argazkizale Elkar-atea). Gaia: ingurugiroa. Zuri-beltzean edo koloretan. Sariak: 50.000 pta. hiru argakitako bilduma onenari, 30.000, 20.000, eta 10.000 pta. Epea: maiatzak 29.

• II. Argazki-Lehiketa Balmaseda Herria. Zuri-beltzean edo koloretan, gai librea. Sariak: 50.000, 40.000, 30.000 eta trofeoa; argazki-bilduma onena: 125.000 eta trofeoa. Lanak aurkezteko epea: ekainak 1.

**Informazio gehiago:**

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

**“PAL”**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**FKLN**

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreproduzioa  
Ofseta

Ferrerias 23,  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M ARENAZA**

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU  
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15



**77 08 15**

# ETXEBIZITZAK

- Logela alokatzen da bi oherekin . Tfnoa: 79 07 73.
- Etxebizitza salgai Zarugalde kalean. Garajea eta ganbara. Guztiz berria. Tfnoak: 77 09 33 eta 79 04 69.
- Erretereria aldean lan egin behar dut; etxebizitzaren batean logela librerik ezagutzen gero, deitu 79 24 66 tfnora. Kepa.
- Arrasaten erdialdean etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta ganbara. Garajea aukeran. Tfno. 79 95 46, gaueko 8etatik 10ak arte.
- Etxebizitza salgai Zaldibarren, berriztua eta prezio onean. 78m2. Deitu konpromezurik gabe 77 12 22 tfnora gaueko 9etatik aurrera.
- Arrasaten neska edo mutila behar da etxebizitza konpartitzeko. Deitu asteleheneretik ostiralera, gaueko 8.30etatik aurrera. Tfnoa: 77 08 90.
- Aretxabaletan edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 79 01 00. Jose Luis.
- Bilbon etxebizitzaren batean logela librerik ezagutzen baduzu, deitu 76 16 68 tfnora.
- Bi oheko logela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Pisua salgai Iturriotz kalean. 89m2, hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua, dena kanporuntz. Dei egin 8etatik 10etara 79 76 56 tfnora.

# LANA

- Hiru gaztek buzoneoa egiten dute Oñatin 3 ordu 1'erditan. Tfnoa: 78 07 72.
- Etxez-etxe drogeria produktuak -bizarra kentzeko labanatxoak eta makinilak- saltzeko jende bila gabiltza. Argibide gehiago 76 60 00 tfnoan.

- Neska euskalduna behar da Gasteizen etxeko lanak egin eta hiru urteko umea zaintzeko. Deitu 20.00etatik aurrera 945 - 23 01 05 tfnora.
- Neska prest etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 49 05.
- Emakumea etxeko lanak eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 65 83.
- Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 87 88.
- Pertsona kualifikatua behar da nutrizio programak saltzeko, 23 urtetik gorakoa. Dei egin arratsaldeko 3.30etatik 7.00etara 77 14 81 tfnora. edo joan Nao de Santiago kaleko 4. era.
- Matematika eta teknologia klaseak hartuko nituzke. (2. REM euskaraz). Deitu 12.00etatik 18.00etara edo 20.30etatik aurrera 79 46 84 tfnora.
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Tfnoa: 77 04 21.
- Jaun-andereok:
  - Egunean hiru ordu libre eta telefonoa badituzu.
  - Beste edozein iharduerarekin bateragarria.
  - Irabaziak: 100.000tik 300.000 pta hilean, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan.
  - Aurrez ordua hartuta bakarrik. Deitu 77 14 81 telefonoan 4etatik 7etara.

# SALEROSKETAK

- Polk-audio markako HI-FI: bi bafle salgai, goi mailakoak (SDA CRS+). Interesatuak dei 79 47 90 tfnora. Jabi.
- Seat Ibiza CLX ia berria saltzen dut. Lau urtekoa. SS-AB. Interesatuak dei egin gauez 79 24 01. Zele.
- Orbea karreretako 54 tailako bizikleta egoera onean salgai. Entrenamenduetarako rodilloa eta arropak (Lagun Arokoa eta estreinatua barik) guztia 20.000 pta.tan. Deitu iluntzeko 8etatik aurrera 79 90 03 tfnora.

- Aretxabaletako Kultur Etxeak motoreta erako lau bizikleta eta zortzi irristola erosi nahi ditu, denak bigarren eskukoak. Tfnoa: 79 01 05 lan orduetan.
- "Data o Tone" organo elektrikoa salgai. Berria eta prezio onean. Interesatuak dei egin: 79 80 55 tfnora. Gauean 8.15etatik aurrera.
- "Mascot" walkie talkie pareta salgai. Berriak eta prezio onean. Interesatuak dei egin 79 80 55 tfnora. Gaueko 8.15etatik aurrera.
- Bost lagunentzako kanping-denda salgai. Aluminiozko hobiak. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- Kutxa izoztailea salgai. Aproposa etxean edukitzeko edo edozein produktu izoztua gordetzeko. Aukera ezin hobea (sei hilabetetan erabilia bakarrik). Interesatuak dei egin astearte eta ostiral bitartean 94 - 682 04 83 tfnora. goizez bakarrik.
- Peugeot 103 modeloko motorra salgai. Ondo zaindua, dokumentatua eta prezio onean. Interesatuak dei egin: 79 80 55 tfnora. Arratsalde 19.00etatik aurrera.

# DENETARIK

- Kaixo K.P.A! Toke ederra bideoarena hil! Honelakoak sariago egin beharko zenituzkete zuen talento artistikoa plazaratzeko. Hemengo emakumeek liluraturik geratu dira Euskadiko mutilak ikusiaz, baina egia esan, emakumezkoak aktorea lana hobeto egin dute, dudarik ez! Laster arte, gorantziak danori. Mi-ren Hamburg.
- Gazte batzuk buzonaketa lanak egingo lituzkete asteburuetan. Interesatuak dei egin: 79 80 55 tfnora. Arratsalde 19.00etatik aurrera.
- La Merced-eko ikasle ohiek afaria dugu maiatzaren 11n. Eman izena Hire liburudendan.



## ARRASATEN HILDAKOAK



- Herrera Agirrebeitia Ana, apirilaren 4ean. 93 urte.
- Aiastui Landa Karmen, apirilaren 5ean. 84 urte.
- Azpitarte Larrañaga Josefina, apirilaren 7an. 70 urte.
- Azurmendi Larrea Eugeni, apirilaren 7an. 86 urte.
- Iria Egiluz Dolores, apirilaren 8an. 78 urte.
- Sagarna Lozano Maria, apirilaren 8an. 64 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

# Zer nahiago?

**Jose Luis Etxebarria**  
**“Porru”**  
**Udaltzainburua**



- **Mondragoe ala Aretxabaleta?** Lana egiteko Mondragoe, baina bizitzeko Aretxabaleta.
- **Oso ondo jokatu eta berdinketa lortu ala oso gaizki jokatu eta irabazi?** Inportanteena irabaztea da.
- **Kirola ikusi ala kirola egin?** Nire adinarekin ikustea baino ezin dugu egin.
- **Trafikoa zuzendu ala ingururen bat zaindu?** Trafikoa zuzentzea hobeto, entrenigarriagoa da.
- **Beldur handiago, norberaren aurkako faltak ala kornerrak?** Faltak arriskutsuagoak dira.
- **Penaltiak jaurtitzen dituztenean, begiak itxita ala zabalik?** Alde edo aurka izan, beti begiak zabalik.
- **Uniformea ala kaleko arropak?** Kaleko arropak nahiago.
- **Kaleko erronda ala bulegoko lana?** Kaleko erronda.
- **Haragia ala barazkiak?** Barazkiak jaten ditut, baina haragia gustokoagoa dut.
- **Maritxu Kajoi ala Santamasak?** Santamasak nahiago ditut, guretzat lan handiagoa badakarte ere.
- **Mendia ala hondartza?** Mendia, baserritarra naiz eta.
- **Jokatzea, etxean ala kanpoan?** Etxean beti, askoz ere giro beroagoa egoten da.
- **Erasoa ala kontraerasoa?** Erasoa.
- **Walkie-Talkieaz ala aurrez-aurre?** Aurrez-aurre gauzak errazago esaten dira, keinuak eta ikusten dira. Bestea hotza da.
- **Futbola ikusteko, telebistan ala futbol zelaian?** Agian hobeto telebistatik ikusiko da, baina girotxoa futbol zelaian dago. Hortaz, bertan egotea nahiago izaten dut.
- **Ospatzeko, txanpaina ala Errioxako ardoa?** Biak dira onak.

# Igarkizunak

## Animaliak

1. Zer ote da, zer batzuetan emea izan arren hasieran beti duena arra?

2. Aldean baduzu haren bila etengabe, ez baduzu zuretzat askoz hobe.

3. Amak egin zidan etxea ate eta leihorik gabea, nahi badut kanpora irten beharrezkoa zait apurtzea.

4. Nork ote du poltsikoa aldean nahiz eta ez duen jantzirik soinean?

5. Txerriaren ahaide ehiztarien harrapakin, basoan du betetzen urdaila ezkurrekin.

6. Belarriak luze isatsa motz, beti korrika eta saltoka ez da izango hotz.

7. Hankaluzea mokoluzea bere etxea kanpandorra; bai liraina amiamokoa edo.

Soluzioak:  
 1 = Arraina, 2 = Arkakusoa, 3 = Txita, 4 = Kangurua, 5 = Basurdea, 6 = Erbia, 7 = Ziko-ina.

**Felipe**  
**Arrizabalaga**  
**aroztegià**



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

**PAZI-OLA SA**

Zaldizpe kalca 2,  
 Tfnoa 79 29 91  
**ARRASATE**





Gesalibarko elizaurrea 1937ko Santa Ageda egunean.

**O**tsailak bost zituen 1937 urte madarikatu hartan. Zazpi hilabete lehenago piztutako gerra zibilak gelditu samar zirudien egun haietan. Izan ere, frankisten hasierako bultzada (Arrasaten 36ko irailaren 26an sartu ziren) inguru hauetan gelditu zen zenbait hilabetez.

1937ko otsailean frentea Murun

eta San Kristobalen zegoen geldituta. Posizio biak defendatzen *Dragoiak* zeuden, Mondragoeko sozialistez osatutako batailoia.

Euskal Herriko egoeraren geldiu-nea ikusita, Jose Antonio Agirre Lehendakariak *Amaiur* batailoia (lau konpainiatan, 600-700 gudari abertzalek osatua) Asturias aldera bidaltzea erabaki zuen. Denak Aramaion bilduko ziren. Aramaion zeudela, Santa Ageda eguna heldu zen. Amaiurko mondragoetar asko Gesalibarrera jaitsi ziren, mezan kantatzera.

Orduantxe atera zen argazki hau.

Ezker aldean monjen komentua dago. Erdi aldean, komentua eta elizaren artean, hormaren atzean, gizakumeen zoroetxeko Camacho deitzen zen hegal bildurgarria. Egun haietan, zoroetxean ingresatuta zegoen Madariaga izeneko mondragoetar batek "Ai, ai, ai, gero gu zoroak!" esaten omen zuen bere aurretik hotzak akabatzen mantatan bildutako gudariak pasatzen ikusten zituen bakoitzean



**HI-FI CARS SYSTEMS**

**AUTORAKO  
ELEKTRIZITATEA**

- Autorako soinua
- Alarmak
- Ekipamendua

Legarre Pabilioia, etxebehea,  
Tfnoa: 77 02 36 ARRASATE

**ALTUNA**



**Lurrindegia  
bisutegia  
drogeria**

Maalako Errabala  
Tfnoa: 79 14 23

# FERIXALEKUKO ESKOLA



Eguzki amandrea  
 zer dakanen berri?  
 Begun joan da eta  
 orain udaberri.



Zer diote mamuek?



(Arrasate Press Hildizkaria)

## BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak  
 Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu  
 Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

## EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

## Mundu garbiketa

Gure  
Jaungoiko Jaun On,  
handi  
eta  
sendoaren  
esku  
leun,  
biun,  
garbi,  
handi,  
sendo,  
majikoek  
mundua garbitzen dute bulegoetan  
hiru fase dituen programa batez:  
a) mundua papertu  
b) papera garbitu  
c) papera mundutu (1).

(1) Abagune honetaz baliatuz, fase honek berekin  
dakartzan eragozpen eta nahigabeengatik  
barkamena eska daiteke.

J. L. Zabala



**ASEGURU  
ARTEKARIA**  
Zure esanetara gauzkazu!

Maialako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

## 15 ASTELEHENA


- 18.30 Teletestua.  
 19.30 **Bapirulauke**, umeen saioa, aste honetan Erguingo Eskola Publikoan grabatua.  
 20.00 **Berriak**, asteburuan Arrasaten gertatutako guztiaren berri, Koldo Rodriguezen eskutik.  
 20.20 **Mondrasport**, ATBren kirol-saioa, Beñardo Kortabariak zuzenduta.  
 20.35 **Saltsa Maltan**, Jaione Olabek hojaldrezko pastela prestatuko du.  
 20.45 **Erreportaia**: Arrasateko Abesbatzak Britainia Handian zehar egindako bidaia.



- 21.15 **Alkatearekin berbetan**. Alkatea kazetarien eta herritarren galderei erantzuten.  
 20.50 **Berriak** (errepikaldia)

## 17 ASTEAZKENA

- 19.00 Teletestua.  
 20.00 **Berriak**, Arrasateko albistegia, Koldo Rodriguezek aurkeztua.  
 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingunua. Gaia: Teknologia eta asmakizunak. Gonbidatuak: Ander Laresgoiti (Ikertan), I. Irazabalbeitia (Elhuyar), J. M. Uzkudun (Fagor) eta Juan C. Amasorrain (EPP).



21.10 **Berriak** (errepikaldia)

## 19 OSTIRALA

- 19.00 Teletestua  
 20.00 **Berriak**, ATBren informatiboa, Begofia Garaik aurkeztua.  
 20.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: M<sup>a</sup> Urbana Juldain, maistra eta bibliotekari ohia.



20.50 **Musikantoi**, Patxi, Pepe, Asier eta Pepek egiten duten saioa. **Berriak** (errepikaldia)

## 16 ASTEARTEA

- 11.00 Teletestua.  
 12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)  
 12.30 **Berriak** (bezperakoa)  
 12.50 **Mondrasport** (bezperakoa)  
 13.05 **Saltsa-Maltan** (bezperakoa)  
 13.15 **Bapirulauke** (errepikaldia)  
 13.45 **Erreportaia** (bezperakoa)  
 14.00 **Berriak**

## 18 OSTEGUNA

- 11.00 Teletestua  
 12.00 **Berriak** (bezperakoa)  
 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)  
**Berriak** (errepikaldia)

## 20 LARUNBATA

- 11.00 Teletestua  
 12.00 **Berriak**(bezperakoa)  
 12.20 **Erretratoa**(bezperakoa)  
 12.50 **Musikantoi**(bezperakoa). **Berriak** (bezperakoa)

## ANALISI KLINIKOAK, LABORATEGIA

*I. Laborra Erdozain*

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)  
**GINEKOLOGI KONTSULTA**

Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18  
 ARRASATE


**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

**M MIKEL**

**Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa**

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
 ARRASATE



Alberto Gorritiberea



Jon Andueza



Asier Aranguren

### Alkatearekin berbetan

**D**atorren astelehenean, hilak 15, gaueko bederatzia eta laurdenetan, *Alkatearekin berbetan* saioaren beste emanaldi bat emango da. Legealdi honetako azken emanaldia, hain zuzen. **Iñaki Mendiguren**en zuzendaritzapean hiru kazetarik, *Loiako Herri Irratiko* **Alberto Gorritiberea**, *Berrigara* ko **Jon Andueza** eta ETBko **Asier Aranguren**ek herriko goraberei buruzko galderak luzatuko dizkiote **Xabier Zubizarreta** Mondragoeko Alkateari. Saioa zuzenean izango da eta azken ordu laurdenean jendeak, telefonoa erabiliz, Alkateari galderak euskaraz egiteko aukera izango du. ATBn gaueko 21.15etan. Tfnoa: 77 08 15.


## Telebegi

Lerro hauek irakurtzen dituzunean, irakurle, hiru aste paseak izango dira *Arrasate Pressen* 100. alearen jaialdia izan zenetik. Musakolako kiroledgian ATBren kamarak ere izan ziren, honelako gertakizun batek merezi du eta. Badi-rudi, gainera, epe laburrean zure pantailan ikusteko aukera izango duzula. Baina ziur nago telebista aurrean ikusitakoa, zuzenekoarekin alderatuz gero, "ez gatz, ez berakatz".

Batzuentzat harrigarria izan badaiteke ere, han izan nintzen kontzertuak irau zituen lau ordu ingurutan, era bateko eta besteko musika entzuten. Benetan tristea iruditu zitzaidan zenbait kantatako letrak jariatzen zuen etsipena eta nola han zegoen jendeak (gazteak gehien bat), porro ke ugariegiaz aparte, irentsi egiten zituen mezu horiek (heriotza, bizitza iluna, etorkizunik eza...).

Nik uste ATBk ez dizula ezkortasun hori heleraziko neri zuzenekoak barneratu zidan neurri berean behintzat. Horrela izan bedi!

Koldo Rodriguez



**A**stelehenean, apirilak 15, gaueko 20.45etan

*Alkatearekin berbetan* saioaren aurretik, ATBk

**Arrasate Abesbatzak** Britainia Haundian zehar egindako jirari buruzko erreportaia eskainiko du, Patxi Montero lankideak egindako lana hain zuzen. Argazkian, Arrasateko Abesbatza eta *Cantorion y Rhyd* korua *Maitia nun zira* kantatzen, Galesko Carmanthen herrian.

## Telebelarri

◆ "Zortzi urtetan Arrasatek 1.000 etxe berri beharko zituela zioen estudio batek. Horren %10a baino ez da egin, batipat lurraren gestioa oso zaila delako".

Jose M. Usatorrek. *Zenbat buru, hainbat aburu*, mahainguruan.

◆ "Atxabaltarrentzat kaltegarria izan da Arrasaten hain etxe gutxi egin izana, han egindakoak garestitu dituelako".

Xabier Pagaldaik. *Zenbat buru, hainbat aburu*, mahainguruan.

◆ "Jende askorentzat Arrasateko auzoetan bizitzea bigarren mailan bizitzea da. Ahal dutenean erdialdera joateko ametsaz bizi dira".


Xabier Pagaldaik. *Zenbat buru, hainbat aburu*, mahainguruan.



## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Iritsi zara urteko zikloaren amaierara eta balantzea egiteko ordua da. Saia zaitzez etsairik ezta herragunerik ez lagatzen. Baleude, bil itzazu denak eta bakeak egin hilaren 4etik aurrera. Berbak zaintzea komeni zaizu.



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Zure bizimoduak bira osoa ematea suerta liteke. Alde batetik zure biziko amodioa gertuan dabilelako eta bestetik benetan gustoko izango duzun eskaintzaren bat egingo dizutelako. Baliteke bidaiaren bat egin behar izatea.



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Sormenerako egoera onean zaude eta erabil ezazu zure lana amaitzeko. Venus-Urano trigonoak diru sarreraren bat emango dizu artearekin zenikusirik duen lanen baten truke. Zure inguruak zintzo portatuko dira zurekin.



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Baliteke zuegandik urrun dagoen norbaitengatik lige horrekin moztu behar izatea. Gogoan izan gogoz ez baduzu maitatzen, maitasuna bera ez dela etorriko zuregana. Bidaiatzeko momentu aproposa da oraingoa.



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra


Laguna eta bion arteko harremana ez da oso osokoa izango lan giroaren ondorioz, tentsio handian bait zaude bertan. Erasokor egongo dira lankideak. Saia zaitzez egoera horri jaramon gehiegirik ez egiten, pasako da eta.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Zorioneko izango zara bai maitasun bai diru arloan. Bata bestearekin loturik etorriko da, izan ere diru asko duen norbaitekin maiteminduko bait zara. Makalaldi iturrietatik ateratzen ari zarela igarriko duzu.



## GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Martek zure esparruan darrai. Egoera honekin egonezina eta haserrea sortzen zaizkizu, lagunak zure arazoetan sartzeak molestatu egingo zaitu. Gainera, baliteke komeni ez zaizun norbaitekin tirabiraren bat izatea. Ebita ezazu.



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Familiak ez du begi onez ikusiko hasi berri duzun harremana. Lan berriren bat ekitako asmoz norbait hurbilduko zaizu, ezezikorik eman beharko zeniokeena, izan ere, zorte ona emango bait dizu negoziotan.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Opari eta kapritzetan dirua erruz gastatzeko arriskuan zaude. Egunotan diru jokoa dagoen toki guztietatik urrun ibiltzea komeni zaizu, toki hauek tentagarriak izango bait dira zuretzat eta zortea ez bait duzu zure alde izango.



## CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra


Zure ahalmenarako oraingoa baino aproposagoa den lanen bat suerta liteke. Beraz, lantokitik kanpo eskaintzaren bat egiten badizute, ez pentsatu bi aldiz. Lankide berriek benetan estimatuko zaituztete.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Bizimodu sentimental bikoitza badaramazu. Saia zaitzez bi maitaleek topo egin ez dezaten. Maitasun arazo hau arazo ekonomiko bihurtu liteke zuhur ez bazabiltza. Komunikaziorako egoera onean jarraituko duzu eta eskaintza ugari egingo dizute.



## PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Saia zaitzez zure ideia eta ekintzak bat etor daitezen, barnelarritasunean murgil bait zintezke horrela jokatu ezean. Baliteke bizimodu guztirako benetako laguna izango duzun norbait ezagutzea. Egon zaitzez adi.

# BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

## Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta 17, etxabea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE

# Indarberritu den lehoi arrasatearra



■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

• 1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze saioa heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m<sup>2</sup> koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

**RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.**

**RONEO UCEM**

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

**iKER**



**SUKALDE-ERAKUSKETA:**

Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE